Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**

POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA

IKASTURTEA 2019-2020

# KUBAREN KANPO-POLITIKA ETA BERE ERAGINA NIKARAGUAN, NAZIOARTEKO HARREMANEN IRAULTZAREN TEORIAREN IKUSPUNTUTIK

EGILEA: Itsasne Allende Sopelana

ZUZENDARIA: Iratxe Perea Ozerin

Leioa, 2020ko maiatzaren 27a

*“En las relaciones internacionales*

*practicamos nuestra solidaridad*

*con hechos, no con bellas palabras”*

(Fidel Castro, 1979)

**AURKIBIDEA**

1. SARRERA ..... 5
1.1. AZTERGAIA ..... 5
1.2. JUSTIFIKAZIOA ..... 5
1.3. HELBURUAK ..... 6
1.4. HIPOTESIAK ..... 6
2. MARKO TEORIKOA ..... 8
2.1. IRAULTZAREN KONTZEPTUALIZAZIOA ..... 8
2.2. IRAULTZAK NAZIOARTEKO SISTEMAN ..... 10
2.3. DIPLOMAZIA IRAULTZAILEA ..... 13
2.4. IRAULTZEN GARRANTZIA XX. MENDEAN ..... 15
3. KUBAKO KANPO-POLITIKA ..... 17
3.1. IRAULTZAILEEK BOTEREA HARTU BERRI ZUTEN URTEAK ..... 17
3.2. KUBAREN SOBIETARTZEA ..... 19
3.3. KUBA LATINOAMERIKA ETA AFRIKAN ..... 21
3.4. KUBAREN KRISIALDI EKONOMIKOA ..... 25
3.5. FIDEL CASTROREN AZKEN URTEAK ..... 27
3.6. RAUL CASTRO ETA MIGUEL DÍAZ-CANELEN URTEAK ..... 30
4. NIKARAGUAKO HISTORIA ETA IRAULTZA SANDINISTA ..... 35
4.1. NIKARAGUA SANDINISMOA AGERTU AURRETIK ..... 35
4.2. SANDINISMOA ..... 36
4.3. KONTRAIRAULTZA ..... 38
4.4. GAUR EGUNGO EGOERA: “ORTEGISMOA” ..... 39
5. KUBAREN KANPO-POLITIKA NIKARAGUAREKIKO ..... 42
5.1. IRAULTZA AURREKO URTEAK ..... 43
5.2. IRAULTZA URTEETAN ..... 45
5.3. KUBA, SOBIETAR BATASUNA ETA NIKARAGUA ..... 48
5.4. NIKARAGUAREN SARRERA ALBA-TCPn ..... 54

5.5. HARREMANAK COVID-19aren TESTUINGURUAN .......... 56

6. ONDORIOAK .......... 59

BIBLIOGRAFIA .......... 67

WEBGRAFIA .......... 75

# 1. SARRERA

## 1.1. AZTERGAIA

Gradu Amaierako lan honen aztergaia Kubako kanpo-politika iraultzailea izango da. Horretarako, Irlak zer nolako kanpo-politika izan zuen Nikaraguarekiko eta gaur egunera arte nola bilakatu diren harreman horiek aztertuko da. Lana Nazioarteko Harremanetako (NH) iraultzen teoriaren ikuspegitik jorratuko da. Gobernu iraultzaile jakin baten kanpo-politika ea beste herrialdeetan, kasu honetan, Nikaraguan, iraultzak ematera zuzenduta dagoen eta nola garai desberdinetan aldatu den analizatuko da.

## 1.2. JUSTIFIKAZIOA

### 1.2.1. AKADEMIKOA

Eremu akademikoari dagokionez, Kubako Iraultza asko aztertu da eta ikerketa ugari argitaratu dira. Karibeko Iraultza ezagunenaren ondoren, hainbat Iraultza eman ziren zonaldean, eta, horien artean, Iraultza Sandinista eman zen. Hori dela eta, Nikaraguan, emandako Iraultza ezagutzea, Kubaren kanpo-politika prozesu honetan izan zuen eragina eta gaur egunera arte nola garatu diren haien arteko harremanak aztertzea garrantzitsua da.

### 1.2.2. POLITIKOA

Zalantzarik gabe Kubako Iraultzak irla barruko politiketan eragin zuzena izan zuen, euren politiken norabidea guztiz aldatu baitzen. Baina Kubako kanpo-politikak ere nazioarteko harremanetan funtsezkoa bilakatu dela uste dut. Hori dela eta, lan honetan, Kubaren kanpo-politikaren norabide desberdinak eta Kubako Iraultzaren eragina nazioarteko harremanetan aztertuko dira.

### 1.2.3. PERTSONALA

Pertsonalki, Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeetako historia eta, batez ere, horietan eman diren Iraultzak eta gerora eman diren aldaketak, nire intereseko gaiak izan dira beti. Beraz, aukera ona ikusten dut Kubaren kanpo-politika, eta izan dituen jarrerak Nikaraguari lotuta aztertzea. Hori dela eta, gaiaren inguruan interesgarria eta originala den zerbait gehitzea gustatuko litzaidake.

## 1.3. HELBURUAK

### 1.3.1. HELBURU NAGUSIA

Lanaren helburu nagusia Kubaren kanpo-politika iraultzailea aztertzea da, ondoren, herrialdeak Nikaraguarekin etapa desberdinetan zehar izan duen lankidetza aztertzeko asmoz.

### 1.3.2. AZPIHELBURUAK

1. Nazioarteko Harremanetako ikuspuntutik Kubaren kanpo-politikaren analisi sakona garatzea, Iraultza gertatu zen urteetatik gaur egunera arte eman diren etapa ororen azterketa eginez.

2. Nikaraguako historia aztertzea Iraultza Sandinistaren ibilbidea eta Kubarekin izandako harremanaren eragina identifikatzeko asmoz.

## 1.4. HIPOTESIAK

H1: Kubako kanpo-politika Irlak igaro dituen testuinguruetara, hau da, bizi izan dituen fase desberdinetara, egokitu da.

H.1.1: Kubak, Estatu Iraultzailea denez, Iraultza ondorengo urteetan zehar Karibe eta Latinoamerikako herrialdeetan iraultzak sustatzeko kanpo-politika izan zuen.

H.2: Kubaren kanpo-politikaren eraginez, Nikaraguarekin izan dituen harremanak eremu iraultzailearen barruan gertatu dira.

H2.1: Kubako Iraultzaren lehenengo urteetan, Nikaraguako Iraultza Kubako kanpo-politikaren eraginez suertatu zen.

H2.2: Irlak, oraindik ere, lankidetza mantentzen du Nikaraguarekin, eta herrialdeak bizi duen Orteguismoaren politika-eremua aldatzearen alde egiten du.

## 1.5. METODOLOGIA

Hurrengo orrialdeetan burutuko den ikerketa bigarren mailako datu bibliografikoetan (artikulu zientifikoetan, aztergai diren liburuetan eta web orrialdeetan) oinarrituko da.

Beste alde batetik, ikerketa hau Nazioarteko Harremanen esparruaren baitan egingo denez, marko teorikoaren oinarriak diziplina honen baitan jorratuko dira; Fred Halliday-ren ikuspuntua oinarritzat izanda. Hala ere, beste hainbat autoreren teoriak ere kontuan hartuko dira analisia egiterako orduan.

Beste alde batetik, lehenengo mailako iturriak ere erabiliko dira. Kubako Gobernuaren kanpo-politika ministerioak eta ISRI-k (Instituto Superior de Relaciones Internacionales) argitaratutako txostenak aztertuko dira, herrialdearen kanpo-politika hobeto ezagutzeko asmoz.

Hala, ikerketa honetan, alde batetik, marko teorikoan Nazioarteko Harremanen teoria iraultzailearen ikuspuntua aztertuko da, lanean zehar beharrezkoak izango ditugun kontzeptuak azaltzeko asmoz. Beste aldetik, kasu praktiko bezala, Kubako kanpo-politika iraultzailea aztertuko da marko teorikoan analizatu den teoria kontuan izanik. Horrez gain, Kubaren eta Nikaraguaren arteko harremanak azalduko dira.

## 2. MARKO TEORIKOA

Marko teoriko honen bidez, lanaren oinarri teorikoak finkatu nahi dira. Horretarako, lanaren metodologian aipatu den bezala, NHen diziplinaren baitan jorratuko da, Fred Halliday-ren iraultzen inguruko ikuspuntua oinarri hartuta.

Lehenik eta behin, ikerketa aurrera eramateko beharrezkoa dugun iraultza kontzeptua aztertuko da. Ondoren, Iraultzek Nazioarteko Sisteman zein leku duten ikertu eta diplomazia iraultzailea zertan datzan aztertuko da. Azkenik, Iraultzek XX. mendean izan duten garrantzia aztertuko da.

### 2.1. IRAULTZAREN KONTZEPTUALIZAZIOA

"Iraultza" kontzeptua 1688ko Ingalaterrako Iraultza Loriatsuan erabili zen lehenengo aldiz; beraz, kontzeptu modernotzat jo daiteke. Hala ere, Frantziako Iraultzak zabaldu zuen terminoa. Frantziako iraultzaileek bere burua iraultzailetzat jo zuten, garai baten amaiera eta beste berri baten hasiera zela adierazi zutelako, hau da, benetako haustura zela adierazteko (Villoro, 2015: 21).

Kontzeptuak denborarekin eboluzionatu du eta esanahi desberdinak garatu izan ditu. Historian zehar, iraultzaren kontzeptuari buruz analisi desberdinak egin dira. XIX. mendearen erdialdean, José Luis Mora Lamadadrid-ek, Eliza eta Estatuaren arteko banaketaren alde egin zuen teorialari liberalak, kontzeptua definitu zuen: <<Las revoluciones dependen de un movimiento general de las naciones (...) los hombres llegan a cansarse de ser lo que son, el orden actual les incomoda bajo todos los aspectos... todos quieren mudar de situación>>[1] (Mora, 1856).

Luis Villoro filosofoak Iraultzak nazioarteko portaera kolektibotzat definitu zituen, hau da, botere politikoa helburu duten talde-ekintzak zirela esan zuen. Hala ere, Villorok argi utzi zuen ezarritako ordena ukatzen duen oro ez dela iraultza: Iraultza ez da soilik erakunde baten erreformara edo gobernu aldaketa batera mugatzen. Iraultzak boterearen zilegitasun-oinarriari buruzko adostasuna hautsi egiten du. Dena dela, haratago doa: horretarako, zilegitasunaren oinarria justifikatzen duten irizpideak baztertu eta beste berri batzuk proposatu behar ditu (Villoro, 1992: 278-280).

---

[1] Aipuak landutako testuen hizkuntzan mantenduko dira.

Theda Skocpol-ek, Estatu Batuetako politologo eta soziologoak, *Los Estados y las Revoluciones Sociales* liburuan, Iraultzak Estatuaren eta gizarte bateko klase-egituraren transformazio azkar eta oinarrizkoak direla esan zuen. Iraultzak, normalean, klase baxuen matxinaden bidez aurrera eramaten dira. Gizarte-iraultzak, bereziki, beste gatazka mota eta eraldatze-prozesuetatik desberdintzen dira, batez ere, bi kointzidentzien konbinazioa direlako: alde batetik, gizarte egituren aldaketa eta klase-borrokaren artean; bestetik, aldaketa politikoaren eta gizarte-eraldaketaren arteko kointzidentziaren artean (Skocpol, 1979).

Definizioaren auzia eta iraultzen zeregin historikoa funtsezkoak dira (Halliday, 2002: 164). Nazioarteko harremanen literaturan, iraultza hitza oso zentzu orokorrean erabiltzen da, eta Estatu-kolpeak eta indarkeriazko leherketak barne hartzen ditu. NHen literatura gehienak iraultzak hausturako eta ez trantsizioko uneak direla onartzen du, eta une horiek erregimen errepresibo baina egonkorren aurka ematen indarkeriagatik bereizten dira, erregimen horiek ez baitira bortitzak. Hala ere, Halliday-ek, iraultzen inguruan, honako hau esan zuen:

> <<Revolutions have aspired to the internal transformation of societies, but equally they have sought to alter relations between states and nations. They have done this not only by provoking conflicts between them and by seeking to promote change in other states, but also by aiming to alter the norms, the very ways, in which states and peoples have interacted. In ideological and programmatic terms, a revolution aims to transform a society within: it has equally to be international, or it is nothing>> (Halliday, 1999: 3).

George Lawson-ek, ordea, *Anatomies of Revolution* liburuan, horrela definitu zituen iraultzak: <<Revolutions are not static objects of analysis, but processes that change in form across time and place>> (Lawson, 2019: 2).

Errealistek uste ohi dute iraultzak lotuta daudela kanpo-politikaren modu aldakorretara eta Estatuen lehentasunetara. Hala, iraultzak jotzen dituzte, nazioarteko sisteman, modu komenigarrian kontrolatu beharreko faktore "errebisionistatzat". Beste alde batetik, behavioristek Iraultzak indarkeriaren espektroaren parte direla uste

dute. Hala ere, indarkeria hori termino psikologikoetan ulertzen dute, gizarte-kausetatik edo nazioarteko testuingurutik kanpo.

Materialismo historikoak Iraultzei arreta handiago jartzen die, eta luze ikertu ditu. Korronte honek Iraultzak prestakuntza- eta trantsizio-rolaren konfiguratzailetzat, eta, gainera, aldaketa politiko eta sozialen erantzuletzat ditu. Iraultzak argi positibo baten pean daudela jotzen dute, eta edozein Iraultza espezifiko nazioarteko testuinguruan kokatu behar direla pentsatzen hasten dira. Marxen ustez, pentarkiaren XIX. mendeko ordena, bost potentzien ordena, “seigarren potentzia” batengatik, hau da, iraultzagatik, aldatuko zen (Halliday, 2002: 165).

Marxek argi utzi zuen Iraultzen garrantzia: <<la fuerza propulsora de la historia, incluso la de la religión, la filosofía, y toda otra teoría, no es la crítica, sino la revolución>> (Marx, 1845-1846). Azken finean, Iraultzaren arazoa planteatzea gizateriaren arazo zentrala planteatzea da.

Hallidayren definizioa berreskuratuz, aipatu behar da Kuba bezalako Estatu iraultzaileak beste Estatu batzuetan aldaketak sustatzen saiatu direla. Iraultza ez da inoiz nazio mailan geratzen, nazioarteko ekintza baita. Are gehiago, Estatu iraultzaileek iraultza esportatzea helburu duten kanpo-politika garatu dute, egoera desberdinetara egokituz joan dena.

## 2.2. IRAULTZAK NAZIOARTEKO SISTEMAN

Nazioarteko harremanen diziplinak Iraultzekin mantendu duen harremana deserosoa izan da beti. Nazioarteko Harremanen ikerketa-esparruan eta instituzionalizatutako irakaskuntzan, Iraultzak eta gerrak bereizi egin dira. Hala ere, Iraultzak bigarren maila batean geratu izan dira beti. Bazterketa honen arazoa honako hau izan daiteke: NHak gerren eta gerren arrazoien ikerketa gisa hasi ziren, eta, oraindik ere, horretan zentratuta jarraitzen dute. Hau da, beraien ustez, Estatuen arteko gerrak arrazionalki erabakitako erasotzat hartu behar dira.

Estatu Batuetako eta Britania Handiko Zientzia Politikoak Nazioarteko Harremanetan sartu zirenean, iraultzekiko interesik eza areagotu egin zen: nazioarteko gizartearen prozesu batzuen haustura gisa ikusten ziren. Behaviorismoarekin, “iraultza”

kontzeptua indarkeriaren eta "barne-gerraren" espektro zabal batean disolbatu zen, eta horrek ukatu zuen espezifikotasun analitiko eta historiko oro. Bestetik, errealismoak ez ditu iraultzak aztergai gisa hartzen, adostasunaren presioak frogatzeko tresna bezala baizik. Euren ustez, Iraultzek ere ezin dute sistematik ihes egin. Iraultzen azterketak ez du tokirik aurkitu gizarte-zientzietan, baina, batez ere, soziologia eta historiatik ikertu izan da (Halliday, 2002: 164).

David Armstrong, bere *Revolución y Orden Mundial: el Estado Revolucionario en la Sociedad Internacional* liburuan Wight-Bull-en "nazioarteko gizartearen" ikuskeratik aldendu egiten da. Lehenik eta behin, gizarteak Estatuaren barneko konstituzioan gehitzen dituen "arauak" sartzen ditu, hala nola, esklabotasuna edo portaera demokratikoa. Beste aldetik, autoreak onartzen du Estatu Iraultzaileek *statu quo*-aren potentziak behartu ditzaketela euren artean lotzen dituzten arauak berrikustera (Amstrong, 1993).

60. eta 70. hamarkadetan, Nazioarteko Harremanak leku gutxi utzi zioten asaldura iraultzaileari. Hirugarren munduan gertatzen ari ziren gatazka sozial eta politikoei oso arreta gutxi jarri zitzaien. Hala ere, hamarkada horietan, Iraultzen garrantzia handia izan zen. Estatu Batuek euren nazioarteko politika justifikatzeko erabili behar izan zuten: <<Justification for US support for authoritarianism during the Cold War was often legitimized by the threat of revolution>> (Lawson, 2019: 29). Gerra Hotzaren beste dimentsio bat bihurtu ziren, funtsezkoak bilakatu ziren gerran, eta armamentu-norgehiagoka nuklearraren katalizatzaile garrantzitsua izan ziren.

Gerraosteko munduaren eraketari dagokionez, gerrillen gerra, forma iraultzaile eta kontrairaultzailean, arma nuklearrak bezain eraginkorrak izan ziren gutxienez. Hauen garrantzia, berriz ere, Estatu Batuek iraultzekiko izan zuten jarreran ikusi daiteke:

> <<In retrospect, the US counter-revolutionary strategy, a full-spectrum programme that ranged from propaganda campaigns to paramilitary training, stands as a testament of counter-revolutionary excess, not just as an attempt to generate regime change in Cuba, which it has self-evidently failed to do, but also in terms of its underlying rationale>> (Gleijeses, 2009; hemen aipatua: Lawson, 2019, 136).

Hallidayen ustez (Halliday, 2002: 160) hiru dira Nazioarteko Harremanen eta Iraultzen arteko interakzio-elementuak:

1. Iraultzak lantzen dituzten Nazioarteko Harremanetako lanak eta esplizituki kontu analitikoetan eta konparatiboetan oinarrituta daudenak gutxi dira. Hala ere, lan hauetan planteatutako kontuek denboraren proba gainditu dute, eta, gainera, kalitate handikoak dira.

2. Iraultzak Nazioarteko Harremanetan teilakatuak egon dira. Beraz, gaur egunera arte iritsi dena berriz irakurri eta berreraiki daiteke adierazgarria izan dadin.

3. Gizarte zientzetan, Nazioarteko Harremanen barruan Iraultzei buruzko eztabaida irekitzeko lanak daude. Hala ere, oso testu gutxi dira, eta, gehienek sistema nazionaletan fokoa jartzen dute.

Hallidayren ustez, Iraultzen Nazioarteko Harremanetan duten lekua aztertzeko, hiru ikerketa-esparruen bidez egin behar da (Halliday, 2002: 161):

1. Historikoa: iraultzek nazioarteko sistemaren historian eta XX. mendeko nazioarteko ingurunearen eraketan duten tokia eta eragina kokatzea.

2. Deskribatzailea: Iraultzen nazioarteko dimentsioen azterketa, zer neurritan identifika daitezkeen erregulartasunak portaera politikoan zehazteko.

3. Teoria (ikerketa-arlo nagusia): Iraultzen ikerketan, Nazioarteko Harremanetan, zer gai teoriko planteatzen diren, alegia, ezarritako paradigma bakoitzak zenbateraino jakin dezakeen edo ez iraultzen garrantzia, eta zer punturaino diren beharrezkoak diziplina horretarako ikerketa baten argitan.

Kasu honetan, Kubako kanpo-politikak Kubako Iraultza esportatzeko saiakeran jarriko dugu arreta. Hori dela eta, ezin izango dugu iraultza desberdinen arteko konparaketarik egin, eta, ondorioz, erregulartasunak ezingo ditugu aurkitu. Hala ere, Kubak, Estatu iraultzaile gisa, nazioarteko sisteman izan duen posizioa aztertuko dugu, dimentsio historikoa jorratuz.

## 2.3. DIPLOMAZIA IRAULTZAILEA

1989. urtearen aurreko garaiko Estatu Iraultzaileen kanpo-politikaren ikerketa esparru oso zabala da, zeinek arreta txikia jaso duen (Halliday, 2002: 169). Gainera, literatura liberal eta errealistaren zati handi bat Estatu iraultzaileen xedeak beste Estatuetakoen oso desberdinak ez direlako oinarritik abiatzen da.

Liberalen ustez, Estatu iraultzaileak hobeto zainduko balira, hauek ez lirateke saiatuko "iraultza esportatzen", hots, harremanak aldatzen beste Estatu batzuen barruan (Halliday, 2002: 170). Nazioarteko sistemari planteatzen dioten erronka da beste estatu batzuen harreman sozial eta politikoen aldaketa beren kanpo-politikaren funtsezko zati bihurtzea, eta ez soilik eskubidetzat hartzea, baita kanpo-politikak oinarri horren gainean gidatzeko betebeharrekotzat ere. Aldiz, errealistek kontu hori gutxietsi egiten dute.

Internazionalismo iraultzailea iraultzen emaitza ia unibertsala bada, eta haren aurkakoa ere bada, hau da, internazionalismo kontrairaultzailea. *Statu quo*-aren defentsa egiten duten potentziek iraultzen eta erreformen hedapenaren aurka egiten dute, eta erregimen horiekin amaitu nahi dute, euren boterea kolokan ikusten dutelako: <<the United States saw its sphere of influence in South and Central America as jeopardized by Cuban activities in the region>> (Amstrong, 1993: 293). Internazionalismo iraultzailea eta kontrairaultzailea homogeneotasunerako joera horretatik eratortzen dira, Estatu batek beste batentzat suposatzen duen mehatxu militarrari eta nazioarteko segurtasunari buruzko edozein iritzi baino haratago doana (Halliday, 2002: 170). Amerikako Estatu Batuek, batez ere, Gerra Hotzeko urteetan, kontrairaultzak finantziatu zituzten: <<many US administrations, particularly during the Cold War, chose to actively support counter-revolutionary movements>> (Lawson, 2019: 28). Horren adibide dugu Nikaragua. Izan ere, Kuba Nikaraguarekin harremanak egonkortzen saiatu zenean, herrialdea bizi izaten ari zen kontrairaultzarekin aurkitu zen: <<Nicaragua found itself embroiled in a war with the USA more destructive than even that to which Cuba had been exposed>> (Halliday, 1999: 123).

Estatu iraultzaile guztiek Iraultza euren herrialdeen kanpoaldean bultzatzen saiatu dira, hura esportatzeko helburuarekin. <<The Cuban revolutionaries who came to power in

January 1959 were, as much as any others in modern history, imbued with a sense of their international mission>> (Halliday, 1999: 116). Hala ere, terminoaren adiera hertsian, ez dute inoiz lortu. Alboko Estatuen erregimen antzekoen sorrera soilik estatuarteko gerra zabalagoen bidez lortu izan da, eta horiek erregimen homologoen ezarpena ahalbidetu dute. Estatuek zuzendutako kontrairaultzaileek ia beti porrot egiten dute; aitzitik, kasu gutxi batzuetan ez da horrela izan: estatuarteko gerrei zegozkienak, hala nola, Karibearen kasuan, Dominikar Errepublika (1965) eta Granada (1983).

Kubako Iraultzaren internazionalizazio saiakerak 1962an hasi ziren: <<The turning point, and the commencement of Cuba's internationalist action, was Fidel Castro's speech of 4 February 1962, officially termed *The Second Declaration of Havana.* Ostensibly a reply to the expulsion of Cuba from the Organisation of Latin American states>> (Halliday, 1999: 116). 60. hamarkadan, olatu iraultzaileak porrot egin zuen: <<In Latin America it did assist numerous guerrilla movements, but for twenty years none came into power>> (Halliday, 1999: 123). Hala ere, 1975ean indar kubatarrek AAHM ezkertiarra (Angolaren Askapenererako Herri Mugimendua) Angolan finkatzeko esku hartu zuten. Beste aldetik, 1977an, Etiopiako Iraultza langundu zuten inbasio somaliarraren aurka eginez. Azkenik, 1979an, Sandinistek, Kubak armatu eta nabarmen babestuta, boterea hartu zuten Nikaraguan:

> <<The Sandinistas had received Cuban support ever since their establishment in 1961; their final military push in 1977 owed much to Cuban arms supplied via Panama and the Costa Rican town of Liberia. At least 500 tons of arms were supplied by Cuba to the Sandinistas; Cuban special forces from the DOE accompanied the Sandinistas, and were in direct radio communication with Havana>> (Halliday, 1999: 120).

Kuba, Estatu iraultzaile bezala, Iraultza esportatzen ahalegindu da: <<This record of more than thirty years of commitment, from 1962 to 1992, ranks as one of the most extraordinary and sustained engagements by any state to the export of revolution>> (Halliday, 1999: 122).

Kubaren kanpo politikaren eraginez, beste herrialde batzuetan, tendentzia iraultzaileak areagotu ziren.

> <<Por su parte, la Revolución Cubana abrió una nueva fase de la historia latinoamericana que se manifestó mediante una sucesión de explosiones de masas que abatieron dictaduras y gobiernos tiránicos, propiciando primero en muchos lugares un retorno a los gobiernos democráticos y después a intentar repetir la exitosa fórmula guerrillera de la Sierra Maestra para establecer el socialismo. De este modo se desencadenó una oleada de luchas revolucionarias que estremeció al continente del Río Bravo a la Patagonia, desde principios de los años sesenta>> (González-Arana, 2008: 270).

## 2.4. IRAULTZEN GARRANTZIA XX. MENDEAN

Iraultzek XX. mendea markatu dute: <<guerras y revoluciones han caracterizado hasta ahora la fisionomía del siglo XX>> (Arendt, 1951: 11).

Errusian ezarritako erregimenak ez zuen funtzionatzen, eta Iraultza herrialdean gauzatzeko baldintza egokiak egon ez arren, Iraultza eraiki zuten. 1917ko Iraultza Boltxebikeak mende horretako Nazioarteko Harremanen funtsezko haustura ezarri zuen. Haustura horrek, lehenik, Gerren Arteko Garaiaren tirabiretan lagundu zuen, eta, geroago, Iraultza gerraosteko garaiako tirabiren menderatzaile izan zen:

> <<Revolutionary situations emerge when the dual (geopolitical and economic) dependency of states becomes unsustainable, and when the amalgam of modern and archaic fosters state crisis. In other words, revolutionary conditions surface in states when the ruling regime does not cope effectively with these challenges and when an opposition group emerges that espouses an alternative political ideology, holds sufficient resources to provide a credible challenge, and carries the support of significant social groups>> (Lawson, 2005: 71).

Estatu kapitalista eta sozialisten arteko banaketa Hirugarren Munduko Iraultzen eraginez handiagotu zen. Iraultza horiek gerraosteko krisi nagusiekin bat egin zuten:

Korea, Kuba, Txina eta Vietnmanen, eta, 80. hamarkadaren amaieran, Angola, Etiopia, Kanbodia, Nikaragua, Afganistan eta Iranen.

> <<The Cuban Revolution symbolized this moment of global southern insurrection, when the revolutionary imaginary shifted from the industrialized first world to the insurgent 'Third World', when the revolutionary agent changed from the proletariat to the peasant, and when the vanguard party was transformed into the vanguard guerrilla>> (Lawson, 2019: 136).

1945 eta 1989. urteen artean, Hirugarren Munduko gatazkek, batez ere, nazioarteko tentsioak elikatzen zituzten: <<...Cuban revolution exemplified variants of southern revolution that resonated around the insurgent 'Third World' during the Cold War>> (Lawson, 2019: 7). Munduaren historia, Bigarren Mundu Gerraren bukaeratik 80. hamarkadaren amaierara arte, neurri handi batean, nazioarteko sistemak Iraultzei eman zien erantzunaren historia izan zen.

80. hamarkadaren amaierara arte igarotako lau hamarkadetan, Iraultzek sistema bipolarrari oinarri historikoa eman zioten. Sistema hori arma nuklearren lasterketak elikatu zuen, eta potentzia handien arteko lehia egin ondoren, potentzia nagusien barne-egonkortasun politikoa mehatxatu zuen.

Iraultzak bizi izan zituzten herrialdeak ez ziren saiatu nazioarteko arau nagusiak zalantzan jartzen ez kanpo-politikan, ez barne-politikan. Diplomaziaren eta zuzenbidearen praktika orokorrak onartzeaz gain, Mendebaldeko erakunde nagusietan sartu nahi izan zuten (Halliday, 2002: 171). Aldiz, aurretik aipatu den bezala, Hallidayren iritzia errealitatetik urrun zegoen. Herrialde horiek beraien Iraultza esportatzen saiatu ziren inguruko herrialdeetara, laguntza desberdinak eskainiz, hala nola ekonomikoa eta militarra, eta, esan den bezala, *statu quo*-a defendatzen zuten herrialdeentzat mehatxu bihurtu ziren. Modu horretan, nazioarteko sistema kolokoan jarri zuten.

## 3. KUBAKO KANPO-POLITIKA

Kubako Iraultzak aurrekaririk gabeko fasea inauguratu zuen herrialdeko nazioarteko harremanetan. Gobernu iraultzaileak eta bere kanpo-proiekzioak aurreko gobernu errepublikanoen kanpo-politikan (1902-1959) haustura nabarmena ekarri zuten. Gainera, hautsi zuten Estatu txiki eta pobreek mundu-politikan izan behar zuten eta joka zezaketen moldea (Romero, 2015: 82).

Kuba herrialde txikia da, baina bere kanpo-politika herrialde handi batena da. Iraultzak hainbat fase bizi izan baditu ere, bere kanpo-politika bide berbera gauzatzen saiatu da, hau da, Iraultza esportatzen. Hala ere, bere Iraultza urteetan zehar testuinguru desberdinetara egokitu behar izan da eta, era horretan, Iraultza beste herrialde batzuetara esportatzeko norabidea aldatuz joan da.

Kubako kanpo-politika, beharbada, Kubako Iraultzaren arrakastarik nabarmenena da. Izan ere, gobernu iraultzailearen lorpen nagusienetarikoa bere biziraupena hirurogei hamarkadetan zehar mantentzea izan da (Domínguez, 2009: 37). Kubako Estatuak denari aurre egin dio, baita 1962ko Misilen Krisiari eta 1989 eta 1991 bitartean herrialde sozialisten kolapsoari ere.

### 3.1. IRAULTZAILEEK BOTEREA HARTU BERRI ZUTEN URTEAK

Guztiaren gainetik, Kubako gobernuak 1959ko urtarriletik aurrera biziraun nahi zuen. 1959 eta 1962 artean, ez zen nabaria gobernu iraultzaileak bizirik iraungo zuenik. Horregatik, arrakasta izateko premia handia zen lehen urteetan (Domínguez, 2009: 65-66). Lehen urte horiek Kubako kanpo-politika birbideratzeko garai gisa sailka daitezke, Irlak ahalegin handia egin baitzuen bizirik irauteko.

Lehen urteetan, Kubak Estatu Batuek zuten jarrera adi-adia eta ofentsiboa ikusi zuen. Jarrera horretan, bizilagun boteretsuarekiko erresumina zen nagusi, mende-erdi baino gehiagoan Irlak jasan zuen mendekotasun politiko eta ekonomikoagatik. Bere programa iraultzailean, Fidel Castrok Estatu Batuetako interesei kaltetzen zieten helburu sozioekonomiko nazionalak zituen, hala nola, lurraren jabetza birbanatzea eta konpainia elektrikoak eta telefono-konpainiak nazionalizatzea (Furtak, 1985: 344).

1959ko maiatzean, herrialdean egindako nekazaritza-erreforma funtsezkoa izan zen barne indar iraultzailerako.

Fidel Castrok hartu zuen bideak Washington-en ondoeza eragin zuen. Izan ere, boterea bereganatu eta gutxira, Batistaren aldekoekin kontuak eman zituen, eta, batzuetan, amaiera odoltsuak izan ziren (Furtak, 1985: 345). Estatu Batuak Kubarekiko zuen kanpo-politika aldatzen hasia zen, baina baita Kubak Estatu Batuekiko zuena ere.

Ahal izan bezain laster, Kuba beste herrialde batzuk konbentzitzen hasi zen Estatu Batuen laguntza alde batera uzteko. Hori diplomazia gero eta zabalduago eta trebeago baten bidez egin zuen, batik bat, alde anitzeko taldeetan parte hartuz, hala nola, Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduan, 1961. urtean, eta, geroago, 77ko Taldeko kide egin zen, gutxien garatutako herrialdeen behar ekonomikoak sustatzeko asmoz (Domínguez, 2009: 40).

1961eko abuztuan Belgraden egindako Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua eratzeko konferentzian, Kuba eskubide osoko kide gisa parte hartu zuen Latinoamerikako eta Karibeko herrialde bakarra izan zen. Afiliazio horren bidez, Kubaren asmoa Mendebaldeko Hemisferioaren barruan jasaten ari zen isolamendu politikoa eta ekonomikoa konpentsatzea eta AEBrekin zuen liskarrean laguntza izatea zen (Furtak, 1985: 348).

Inflexio-puntua eta Kubako ekintza internazionalistaren hasiera Fidel Castrok 1962ko otsailaren 4an emandako hitzaldia izan zen, ofizialki Habanako Bigarren Adierazpena deiturikoa. Diskurtsoa, alde batetik, Kuba Latinoamerikako Estatuen Erakundeen kanporatzearen erantzuna izan zen. Bestetik, Castro Sobietar Batasunaren (SESB) zuzendaritzaren jarrera okerraren inguruan ere aritu zen, orduan Mendebaldearekin baterako existentzia baketsuaren politika garatzeaz arduratzen ari zelako. Hirugarren Munduaren eta, bereziki, Latinoamerikaren ustiapen inperialistaren historia eta izaera berrikusi ondoren, Castrok hurrengo hamarkadetan Kubaren kanpo-politika menderatuko zuten bi gaiak hartu zituen ardatz: Iraultza egiteko beharra eta Latinoamerikako herri guztien borroka komuna (Halliday, 1999: 116-117).

Bigarren Adierazpenaren ondoren gertatutako ekintzek Kubako lidergoa berretsi zuten Latinoamerikako eta, oro har, Hirugarren Munduko iraultzak babesteko konpromisoan.

Kubak termino estrategiko bat garatu zuen: *Defensa Revolucionaria Activa*, (`Defentsa Iraultzaile Aktiboa´). Horrek Estatu Batuen (AEB) erasoei honela erantzutea esan nahi zuen: borroka nazioarteratzea, Latinoamerikako gerrillarien mugimenduei lagunduz eta AEBtan bertan ezkutuko operazioetarako prestatuz (Halliday, 1999: 117).

Hala ere, 1960ko hamarkadaren amaieran, Iraultza Hego Amerika osoan ez zen gauzatu. Gainera, Kubak bere isolamenduaren kostu politiko eta ekonomiko handiei aurre egin behar izan zien, eta bitarteko diplomatiko konbentzionalagoetara jo behar izan zuen, antzeko helburuak lortzeko, hala nola, harreman ofizialak berrezartzeko (Armstrong, 1993: 167).

Kubaren eta Amerikako Estatu Batuen harremanak hondatu ahala eta erabateko hausturara iritsi arte, Irla Sobietar Batasunarekiko jarrera aldatuz joan zen (Furtak, 1985: 347). Kanpo-politika herrialdeak hautatu zuen norabide berrira egokitzeko beharra zuen, eta halaxe egin zuen lehenengo urteetan.

## 3.2. KUBAREN SOBIETARTZEA

1959tik Kubak positiboki jaso zituen Sobietar Batasunaren eta beste herrialde sozialista batzuen ideia asko. 60. hamarkadan, ordea, Kubak erakutsitako independentziak desadostasun handiak eragin zituen Sobietar Batasunarekin zituen harremanetan.

1959ko bigarren erdialdean, SESBek Kubarekiko zuen interesa eta sinpatia areagotu egin ziren. Sobietar Batasunak oso ondo ikusten zituen Fidel Castroren nekazaritza-erreformak eta nazionalismo antiamerikarraren areagotzea. Hala ere, buruzagi sobietarrek Kubarekiko distantzia mantentzen zuten (Lévesque, 1977: 221).

Kubak nazioarteko laguntza behar zuen Estatu Batuekin mantentzen zuen gatazkan. Sobietar Batasunak bakarrik, Iraultzaren lehen urte horietako mundu-giro politikoan, ahalmen militarra, politikoa eta ekonomikoa zuen Kubari behar zuen laguntza emateko. Gainera, Kubak sobietar konexioa behar zuen, erregimen marxista-leninista errazteko ez ezik, hazkunde eta birbanaketa ekonomikorako programa bat finantzatzeko ere (Domínguez, 2009: 38).

1960ko otsailaren 5ean, Mikoyan-ek, Sobietar Batasuneko Ministroen Kontseiluko presidenteordeak, Habana bisitatu zuen eta, horren ondorioz, Kubaren eta Sobietar

Batasunaren arteko harremanak estutzen hasi ziren. Hala ere, Castroren eta Khruschev-en arteko lehen bilera 1960ko irailean izan zen (Furtak, 1985: 347-348). Kruschevek jakinarazi zuen SESBek Estatu Batuek inportazio-kuotatik kendutako Kubako azukre guztia erosiko zuela. Gainera, buruzagi sobietarrek oso positibotzat hartu zuten Fidel Castrok Batistaren armada eta polizia erabat suntsitzea (Lévesque, 1977: 221).

Kubaren eta Sobietar Batasunaren arteko harremanek gorabehera ugari izan zituzten 60. hamarkadan, eta 1967-1968an, behea jo zuten. Kubako ekonomiaren kudeaketari buruzko desadostasunak zeuden, eta borroka armatuak Kubako kanpo-politikan zuen zereginaren inguruan ere liskarrak zeuden. Gainera, Kubako Alderdi Komunistaren barruko taldeak manipulatzeko ahalegin sobietarrak areagotu egin ziren (Domínguez, 2009: 68). Dena dela, gertakaririk larriena 1967ko urtearen amaieran gertatu zena izan zen, Sobietar Batasunak petrolioaren hornidura murriztea erabaki zuenean. 1967. eta 1968. urteen artean, Kuba eta Sobiertar Batasunaren artean sinatutako akordioen kopurua txikiena izan zen 1960tik. Horrez gain, 1967an, SESBek % 3an murriztu zuen Kubarako petrolio-hornidura, nahiz eta handitzea aurreikusi zuten. 1968an, Castrok ekintza hori salatu zuen, eta horren aurka, Kubako Alderdi Komunistako militante sobietarzale batzuk prozesatu zituen (Mesa-Lago, 1994: 68).

1968tik aurrera, Kubako politika espezifiko ugari aldatu ziren, eta aldaketa horien norabidea Sobietar Batasunaren kanpo-politikarekiko bateratasun-maila handiagoan islatu zen. 70. hamarkadako lehen urteetan, Sobietar Batasunak ehunka milioi dolar bidali zituen Kubara garapen ekonomikora bideratutako kredituetan. Gainera, doako sobietar armak bidaltzeko agindu zuen (Domínguez, 2009: 45).

1972an, Kubak SESBrekiko zuen mendekotasunak punturik altuena lortu zuen. Kubako merkataritzaren % 60 inguru sobietarrekin egiten zen (% 70 COMECONekin), gutxi gorabehera, 1950eko hamarkadan Estatu Batuekin egiten zen bezala. Bestalde, urte horretan, Kubak Sobietar Batasunarekin zuen zorra 4.000 milioi dolar ingurukoa zen (Mesa-Lago, 1979: 44-45).

1972ko azaroan, gobernu-aparatu kubatarra berrantolatu zen. Berrantolaketa horretan, Carlos Rafael Rodríguez (ekonomialari kubatarren dekanoa, planifikatzailea

eta Partido Socialista Popular-eko jatorrizko kidea) kanpo-politikako ministro aukeratu zuten. Rodríguezek kanpo-harremanen eta Kubaren eta Sobietar Batasunaren arteko Batzordearen gaineko agintea lortu zuen (Mesa-Lago, 1979: 47-48). Rodríguezen hautaketak are gehiago hurbildu zuen Kuba SESBra, bere ahaleginekin Kubako ekonomia eta horren planifikazioa sobietar blokean integratuago geratuko baitzen.

Kubaren adierazpenen tonu ideologikoak eta Latinoamerikako beste iraultzaile eta Txinarekin zituen harreman tirabiratsuak Kuba eta Sobietar Batasunaren arteko harremanen isla ziren. Kubako iraultzaren historia batek ere ezin du alde batera utzi bi Estatu komunista nagusien arteko gatazka tektonikoak 1960ko hamarkadan izan zuen eragina. Batez ere, gatazka horrek Kuban bertan izan zuen eragina izugarria izan zen politikaren eta lidergo-gatazken arloan. Kubaren konpromiso internazionalista, batik bat, Kubaren independentzia Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren aurrean handitzeko diseinatu zen (Halliday, 1999: 122).

Hala ere, Kubako lidergoan barneratu zuten kanpo-politika berri eta positiboa sortzeko beharra zegoela, Sobietar Batasunaren mendekotasun hutsetik haratago joan behar zuena. Sobietar Batasuna urrun geratzen zen, geografiak zaildu egiten zuen Kubari laguntzeko gaitasuna, baita zaildu bien arteko harremanaren egonkortzea ere (Domínguez, 2009: 39). Orobat, Sobietar Batasunaren amaiera hurbil zegoen, eta Kubaren Iraultza esportatzeko helburuak bizirik jarraitzen zuen.

## 3.3. KUBA LATINOAMERIKA ETA AFRIKAN

70. hamarkadako kanpo-politika aldatu egin zen, 60. hamarkadaren amaieran arrakasta lortzeko zeuden oztopoen ondorioz. Porrot ezagunenak Latinoamerikako beste leku batzuetan gerrillari-mugimendu iraultzaileei laguntzeko ahaleginak izan ziren. Egia esan, Ernesto “Che” Guevarak Bolivian izan zuen porrota ez zen arrazoi bakarra izan; izan ere, eskualdeko beste herrialde batzuetan ere gertatu zen. Latinoamerikako gobernuek, Estatu Batuetako gobernuen laguntzarekin, gerrillarien ahalegin horiei kolpe handia eman zieten, eta, hala, Kubako kanpo-politikaren arrakastarako beste oztopo garrantzitsua izan zen. Beraz, Kubak garai iluna bizi izan zuen (Domínguez, 2009: 69). Kuba bere baliabide guztiekin borrokatu zen Iraultza

beste herrialde batzuetara esportatzeko, baina porrot gehiago izan zituen arrakastak baino.

1963ko azaroan, hiru tona arma eta munizio aurkitu ziren Venezuelako hondartza batean, eta, ikerketa egin ondoren, horietako batzuk Kubarenak zirela ondorioztatu zitekeen. Gainera, inguruan zegoen ontzi txiki baten motorra hilabete batzuk lehenago Kanadatik Kubara bidalitako motorra zen. Hori izan zen, CIAren arabera, <<The first certain instance of major Cuban participated in the supply of arms to subversive elements in American Countries>> (NYW, 1975; hemen aipatua: Gleijeses, 2002: 23). Kasu honetan, Kubak asko arriskatu zuen, eta bidali zituen armak *Plan Caracas*-en parte izan ziren. Plan horren bidez, Venezuelako gerrillak eraso militar garrantzitsuak egin nahi zituen hiriburuan, 1963ko abenduko lehendakaritzarako hauteskundeak nahasteko eta herri-matxinada eragiteko (Gleijeses, 2002: 23). Castro Latinoamerikako borroka armatu desberdinak babesten ari zen, gerrillariei zituen baliabide guztiekin lagunduz. Hala ere, 1964rako hainbat egoera latzei aurre egin behar izan zien. Nabarmenena gerrillak Venezuelan izandako porrot ikusgarria izan zen, 1963ko abenduko lehendakaritza-hauteskundeak ezin izan baitzituzten eten (Gleijeses, 2002:28).

Kubak Hirugarren Munduan egindako ekimen ezagunetako bat Bolivian izan zuen presentzia izan zen. Herrialdeak gerrillari talde bat, haien artean Ernesto “Che” Guevara zegoena, bidali zuen Boliviara. Helburua Boliviako erregimena ahultzea eta, ondoren, mugimendu iraultzailea Latinoamerikako beste leku batzuetara zabaltzea zen. Guevararen misioa, dirudienez, ez zuen Barne Ministerioak aurrera eraman, baizik eta Castrok kontrolatutako aparatu batek. Castrok bere jendeari esan zion Bolivian zuen helburua hauxe zela: Estatu Batuak gainditzea, era horretan, potentziak Kubarekiko zuen presioa malgutuko zuelako (Halliday, 1999: 121). Kubak ez zuen borroka irabazi Bolivian, eta CIAk Che-ren hilketa agindu zuen. Momentu horretan, CIAk uste zuen botere popularraren aurkako borroka ideologikoa irabazi zuela kontinentean (Randall, 2017: 97). Hala ere, ez zen hala izan, oraindik gerrillarien mugimendu batzuk bizirik baitzeuden, eta Kubak herrialde askotara Iraultza esportatzeko nahia mantentzen baitzuen.

Kubaren ahaleginen balantzeak nazioarteko harremanen errealitateak eta Kubaren boterearen mugak ere islatzen ditu. Latinoamerikan gerrillarien mugimendu askori lagundu zien, baina hogei urtez inor ez zen boterera iritsi. Boterera heldu zen lehengo gerrilla Nikaraguakoa izan zen, eta boterea hartu zuenean, herrialdea Estatu Batuekin gerra luze eta suntsitzailean sartu zen. Gainera, 1990eko azaroko hauteskundeetan, Violeta Chamorroren garaipenaren ondorioz, Estatu Batuek Nikaraguako gerrilla boteretik atera zuten (Halliday, 1999: 123). Beharbada, hauteskunde horien alderdirik esanguratsuena honako hau izan zen: Nikaraguako herriak kontzientzia hartu zuen sandinisten garaipenak Estatu Batuen kontrako gerra luze eta suntsitzailea jarraituko zuelari buruz (Blum, 2004: 304).

Akats larria da onartzea Kubak Latinoamerika osoan askapen-mugimenduei emandako babesak eta horietan izandako eraginak ez zutela arrakastarik izan. Kubaren eragina handia da, oraindik ere, gaur egun Latinoamerikako hainbat herrialdeetan sortu diren gobernu progresistetan (Randall, 2017: 93). Kubak ez zuen lortu lagundu zituen gerrillari-mugimenduek boterea lortu zezaten, baina eragin nabarmena izan zuen Latinoamerikako gizarteetan. Eragin horrek gaur egungo testuingurura egokitu dira, eta oraindik presente daude.

Bestalde, Kubak Afrikara egindako bidaia ez zen 1975ean Angolan hasi. Izan ere, aurretik Aljerian, Kongoko Errepublika Demokratikoan (gerora Zaire), Kongoko Errepublikan eta Guinea Bissaun egon baitzen. Kubak Angolan esku hartu aurretik, ia bi mila soldatu eta laguntza humanitarioko langile zituen Afrikan laguntzen (Gleijeses, 2006: 99). 1959 eta 1974 bitartean, kubatar gehiago borrokatu ziren Afrikan Latinoamerikan baino (Gleijeses, 1996: 5). Irlak, Iraultza ondorengo urteetan, Afrikako herrialde desberdinetan Iraultza esportatzen saiatu zen, era askotako laguntza eskainiz eta bidaliz.

Piero Gleijeses-en ustez, Kubak 1975. urtea baino lehen Afrikan izan zuen politika hiru fase nagusitan bana daiteke. Lehenengoa, 1964. urtea baino lehen eman zen, eta honetan, arreta-zentroa Aljeria izan zen. Bigarrena, 1964. eta 1966. urteen artean gertatu zen. Garai horrek hainbat ezaugarri berezi izan zituen: Kubak bat-batean arreta Saharaz hegoaldeko Afrikan jarri zuen, Guevarak Afrikara hiru hilabeteko bidaia egin zuen eta Zaire eta Kongoko Errepublikara kubatar zutabeak bidali ziren. Azken etapa

1966tik 1974rara gauzatu zen. Urte hauetan, Kubaren gero eta heldutasun handiagoa nabaria zen, eta Kubak Ginea-Bissaun izandako parte-hartze luze eta arrakastatsuaren ondorioz nabarmentzen da (Gleijeses, 1996: 5-6). Gleijeses-ek aipatzen dituen etapak Kubaren kanpo-politikaren egoera desberdinen arabera sortu ziren.

1961ean, Kubatarrak, beren ekimenez, Aljeriako matxinatuei laguntzen hasi ziren (Gleijeses, 1996:12). 1961eko abenduan, ontzi kubatar batek arma-kargamentu bat deskargatu zuen Casablancan, eta kargamentu hori Aljeriako matxinatuentzat zen. Ontzi bera hilabete batzuk geroago Habanara itzuli zen, eta barruan 76 soldadu aljeriar zauritu eta errefuxiatu-esparruetan zeuden 20 haur zeuden. Laguntzak Aljeriak independentzia lortu ondoren ere jarraitu zuen. 1963ko maiatzean, 55 pertsonako mediku-misio kubatar bat iritsi zen Aljeriara. Ondoren, 1963ko urrian, Marokok Aljeria mehatxatu zuenean, kubatarrek 686 gizoneko indar-berezia bidali zuten, arma astunak zituztela, Aljeriari laguntzeko. Kontuan izan behar da Kubak Marokorekin kontratu bat sinatu berri zuela milioi bat tona azukre kubatar erosteko 184 milioi dolarren truke. Dibisa-kantitate hori oso handia zen Kubarentzat, momentu hartan, Estatu Batuak Kubako ekonomia geldiarazten saiatzen ari baitziren (Gleijeses, 1996: 6). Hala eta guztiz ere, Kubak bere iraultza esportatzeko saiakerarekin aurrera egin zuen, eginkizun iraultzailea Marokorekin zuen akordioaren aurretik jarriz. Bere kanpo-politikaren oinarriak defendatu zituen, beharrizan ekonomikoen aurretik.

Angolan, MPLAri (Angolako Askapenerako Herri Mugimenduari) laguntzea zen helburua, CIAk, Zairek, Txinak eta Hego Afrikak babesten zituzten angolarren aurka (Halliday, 1999: 121). 50.000 soldadu kubatar baino gehiago izan ziren Angolan hamarkada bat baino gehiago iraun zuen misio batean (Lawson, 2019: 91). Kontuan izanda Kuba irla txikia dela, bidalitako soldadu- eta laguntza-kopurua izugarria izan zen: Kubak benetako presentzia izan zuen Angolan.

Etiopian, 1974an, Carter karguaz jabetu eta bi astera baino gutxiagora, Haile Selassie enperadorea kanporatu zuen junta militarrak ezkerretara itzuli zen, Estatu Batuek Addis Abeban eragina izateko zuten itxaropena bertan behera utziz. 1977ko uztailean, Somaliak Ogaden (ekialdeko Etiopiako eskualdea, non etnia somaliarreko talde bat bizi zen) inbaditu zuen. Ekintza horrek Etiopiako junta militarra astinduta utzi zuen. 1977ko azaroaren 25ean, Mengistu Haile Mariam-ek, alegia, junta militarrako presidenteak,

Castrori tropak eskatu zizkion. Castrok baietz esan zuen, eta Etiopiara tropak bidaltzea erabaki zuen, erasoak uxatzen laguntzeko (Gleijeses, 2006: 107-108). 1978aren hasieran, Etiopian 12.000 soldadu kubatar inguru zeuden (Gleijeses, 2006: 98).

Hogeita hamar urte baino gehiagoko konpromiso-errekor hori, 1962tik 1992ra bitartean eman zena, Iraultzaren esportaziorako ekintzetan, edozein estatutako konpromiso berezi eta iraunkorrenetako bat da (Halliday, 1999: 122). Kuba Iraultza bere baliabide guztiekin esportatzen saiatu zen. Besteak beste, armamentuan, logistikan eta material humanitarioan hornitu zituen Latinoamerikako eta Afrikako hainbat herrialde. Kasu gutxitan lortu zuen Iraultza esportatzea; alabaina, bere kanpo-politika horretara bideratuta egon zen, eta egoera desberdinetara egokitzen joan zen.

## 3.4. KUBAREN KRISIALDI EKONOMIKOA

1990. urtera arte, Kubak nazionarteko harremanetan potentzia handia balitz bezala jokatu zuen. Armada ugari eta tamaina handikoak hedatu zituen bere kostaldetik hamaika kilometrotara, eta kanpoko lurretan mantendu zituen urte askotan zehar. Angola eta Etiopiako soldaduek Sobietar Batasunak Afganistanen eta Estatu Batuek Vietnamen lortu ez zutena lortu zuten: garaipena. Kubak mugimendu iraultzaile ugari eta askotarikoak bultzatu zituen Latinoamerika eta neurri txikiago batean Afrikan, eta, gainera, Sobietar Batasunaren aliaturik onena eta fidagarriena izan zen aurreko hiru hamarkadetan zehar (Domínguez, 2009: 375). Kubak Iraultza esportatzera bideratutako kanpo-politikari eustea lortu zuen, baina une horretan ez zen jasangarria.

1990. urtearen hasieran, Etiopiara 1977an irtsi ziren soldadu kubatar bat ere ez zegoen bertan, eta Afrikako herrialdean hainbat espezialista militar sobietar baino ez ziren geratzen. 1990eko udaberrian, ez zegoen militar kubatarrik Nikaraguan; hala ere, medikuak geratzen ziren. 70eko hamarkadaren erdialdean eta 80ko hamarkadaren amaieran munduko leku guztietan bizi ziren kubatarrak beren herrialdera itzuli ziren 90eko hamarkadaren hasieran (Domínguez, 2009: 311). Kuba Iraultza esportatzen saiatu zen herrialdeetan. Izan ere, armamentua eta soldaduak bidaltzeaz gain (Nikaraguaren kasuan bezala), medikuak eta irakasleak ere bidaltzen zituen. Alde batetik, Kubako Iraultzaren oinarri garrantzitsu bat gizartea alfabetatzea zen. Horregatik, bere misioetan irakasleak bidaltzen zituen. Bestalde, Kubak osasun-arloan

egin zituen aurrerapenak oso handiak izan ziren; hori dela eta, hainbat herrialdeetan, Nikaragua kasu, medikuak utzi zituen, laguntza eskaintzeko asmoz. Kubaren kanpo-politikak testuinguru desberdinetara egokitu behar izan duenez, osasun-arloan egindako ekarpen horiek ez ziren Nikaraguan 1990an amaitu, baizik eta gaur egunera arte iritsi dira, eta begi bistan geratu dira Covid-19ari dagokionez.

1989tik aurrera, Kubak Sobietar Batasunarekin zuen merkataritza jaisten hasi zen, eta eta 1990ean Sobietar Batasuneko buruzagiek Kubari bi emakida ekonomiko garesti kentzea erabaki zuten. Alde batetik, dibisetan ordaindutako petrolio-berresportazioak; eta, bestetik, Kubak Frantziako enpresa batekin zuen zorraren bermea, azukrea esportatzeko konpromisoak betetzeko helburua zuena. Aipatutako enpresa horrek kredituak ematen zituen mundu-mailako merkatuan azukrea erosteko. Gainera, Kubak ez zuen SESBekin bost urterako akordiorik sinatu, 1991 eta 1995 artean irautekoa zena (Mesa-Lago, 1994: 149).

90. hamarkadatik aurrera, sistema sozialistak Ekialdeko Europan izan zuen kolapsoarekin, Sobietar Batasunaren desagertzearekin eta herrialdearen baldintza ekonomiko eta sozialen narriadura sakonarekin, Kubak bere nazioarteko proiekzioa berriro definitzera behartuta ikusi zuen bere burua. Berrantolaketa horrek arrakasta izan zuen. Era berean, nazioarteko hainbat forotan bere eragiteko gaitasuna handiagotu zen, eta, gainera, Kuba munduko ekonomian selektiboki integratzen joan zen (Romero, 2015: 129).

Beraz, mundu-sistema sozialistaren kolapsoak eta Gerra Hotzaren amaierak eragin negatibo garrantzitsua izan zuten, sozialismo kubatarraren erreprodukzio ekonomikorako (eta sozialerako) ez ezik, bere kanpo-politikarako ere bai. Ekialdeko Europako Sozialismoaren amaieraren ondorioz, Kubak nazioarteko potentziaren, Sobietar Batasunaren, euskarria galdu zuen (Fernández, 2008; hemen aipatua: Romero, 2017: 83).

Bestalde, Kubak gaitz handia pairatu behar izan zuen bere nazioarteko merkataritzan. Nazioarteko zorrak ordaintzeko gai ez zenez, ez zuen epe luzeko mailegurik jasotzen finantza-merkatuetan. Gainera, ez zuen kreditu bigunik lortzen arrazoi politikoengatik.

Oso tasa altuak zituztenen epe laburreko kreditu komertzialak besterik ez zituen jasotzen (Domínguez, 2009: 375-376).

1993an, irekiera ekonomikoaren prozesua eman zen, Kubako gobernuak azken hogeita hamabost urteetan herrialdeak izan zuen krisi ekonomiko okerrenari aurre egiteko hartutako politikaren ezaugarrietako bat. Erreforma ekonomiko partzialeko prozesu bat izan zen, eta, funtsean, aldi berekoak ziren hiru fenomeno biltzen zituen: turismoaren garapen azkarra, kanpo-merkataritzaren dibertsifikazioa eta atzerriko inbertsioaren sustapena. Horrez gain, 1993ko bigarren erditik aurrera, atzerriko dibisak edukitzearen "despenalizazioa" izeneko irekiera-prozesuan sartu zen, eta horrek atzerriko moneta batzuen zirkulazio librea legeztatu zuen herrialdean. Eremu horietan izan ziren irekiera ekonomikoek merkatura bideratutako erreforma partzialak adierazi zituzten, eta ekonomiaren sektore gehienetan, urte askotan zehar, indarrean egon zen eredu ekonomikoarekin bat egin zuen (Monreal eta Rúa: 1994: 542).

Fidel Castrok, 2000. urtean, argi utzi zuen Kubak 90. hamarkadan bizi izan zuen egoera: <<Para mí, personalmente, los principios de los años 90 parecían ser el final. Ciertamente fue mucho menos divertido que durante la Guerra Fría>> (Castro, 2000; hemen aipatua: Domínguez, 2009: 596). Gainera, egoerak herrialdearen Iraultza esportzatzeko joeran gogor jo zuen: <<Luego, de repente, entre 1989 y 1992 tuve que repatriar todas mis tropas e incluso suspender el apoyo a los movimientos revolucionarios en el extranjero porque ya no contaba con la Unión Soviética como “póliza de seguro”>> (Castro, 2000; hemen aipatua: Domínguez, 2009: 596-597).

## 3.5. FIDEL CASTROREN AZKEN URTEAK

90eko hamarkadaren amaieratik, Kubak birgizarteratze-prozesua hasi zuen Latinoamerikako komunitatean, hain zuzen ere, eremu multilateraletan (Serbin, 2011: 234-235). Une horretan, Kuba CARICOMekin zituen harremanak sendotuz joan zen, eta, 2002ko abenduan, Kuba eta CARICOMen arteko goi-bilera bat Habanan egin zen. Kuba ez zen, formalki, CARICOMeko kide osoa, baina harremanak izaten hasi zen taldeko kide ziren 14 estatu independenteekin. Gainera, haiekin lankidetzan aritu zen osasun-, hezkuntza- eta energia-programetan (*Misión Milagro* ‘Milagro Misioa’ eta unibertsitate-beken programa barne) (Serbin, 2011: 236). Latinoamerikarekiko eta

Karibearekiko harremanak lehentasun handiko gai bihurtu ziren Kubako gobernuarentzat XX. mendearen amaieran.

Bestalde, 1996ko abenduan, Europar Batasunak “jarrera bateratua” hartu zuen Kubarekiko. Gainera, Kanadako esperientzia Europakoaren antzekoa izan zen. Kubak eta Kanadak lankidetza-hitzarmena sinatu zuten, gai ekonomikoak, sozialak eta giza-eskubideen ingurukoak biltzen zituena (Domínguez, 2009: 384-385). Hurrengo urtean, 1997ko urrian, Fidel Castrok eta Kubako Alderdi Komunistaren Bosgarren Kongresuak SESBren eta gobernu sozialista guztien porrotaren aurrean bizirauteko izan zuten gaitasuna goraipatu zuten (Domínguez, 2009: 339).

Edonola ere, 2001ean, Kubaren harreman politikoak nazioarteko harremanetan pisua zuten hiru bazkide ekonomikoekin besterik ez ziren onak: Errusia (neurri batean, Putin presidenteak 2000ko abenduan egindako bisitari esker), Txina (abenduan sinatutako akordio militar batek lagunduta) eta Venezuela (Fidel Castro eta Hugo Chávez presidenteen arteko adiskidetasunak bultzatuta). Dena den, azpimarratu behar da Kubak Latinoamerikako beste herrialde batzuekin izan dituen harreman politikoak ez zirela gatazkatsuak izan. Kubak paper onuragarria eta garrantzitsua izan zuen Erdialdeko Amerikako bake-prozesuetan, hala nola El Salvador eta Guatemalan. Era berean, Kolonbiako bake-prozesuan parte hartu zuen, bakea sustatuz, batez ere, Andrés Pastrana presidentearen gobernualdian (1998-2002) (Domínguez, 2009: 386-387). Gainera, 2012an Habanan hasitako bake-prozesuan rol oso garrantzitsua jokatu zuen. Bere parte-hartzea Kolonbiako prozesuan, Jairo Estradak, Kolonbiako Indar Armatu Iraultzailearen (FARC) kidea, era honetan goraipatu zuen: <<Es un país que permanentemente ha contribuido a la construcción de la paz en Colombia>> (Estrada, 2020; hemen aipatua: Granma, 2020d). Horrez gain, Fidel Castroren agintaldiaren azken urteetan, Latinoamerikako eta Karibeko hainbat herrialdeek ezkerrerantz egin zituzten biraketak markatu zituen. Castrok testuinguru historiko berrira egokitzen jakin zuen, eta inguruko herrialdeekin harremanak sendotu zituen.

2008. urtean, Latinoamerikako hemezortzi herrialdeetatik hamaika zentro-ezkerreko edo ezkerreko presidenteek gobernatzen zituzten (Stoessel, 2014: 124). Gertaera hori ez zen espero 80. eta 90. hamarkadetan, eredu neoliberalak eskualdearen hegemonia lortu baitzuen, eta herrialde desberdinetako ezkerrak ahulduz joan baitziren. Nolanahi

ere, 1999an Venezuelan Chavezek eta 2002an Brasilen Lula da Silvak hauteskundeak irabazi zituzten, eta horrek Latinoamerikako mapa politikoan eraldaketak ezkertiarren esku egongo zirela aurreratu zuen (Paramio, 2003; hemen aipatua: Stoessel, 2014: 126). Gertaera horiek positiboak izan ziren Kubako kanpo-politikarako. Kubak aukera ikusi zuen Iraultza esportatzen jarraitzeko, baina testuingurua momentu hartan duela hamarkada batzuetako testuingurutik oso urrun zegoen: Iraultza modu desberdin batean esportatu behar zutela ikusi zuten. Castrok bere herrialdea eskualdeko blokeetan sartu nahi izan zuen, merkataritza-akordioetatik haratago zihoazen blokeetan. Testuingurua aldekoa zuenez, integrazio-bloke horietan akordio politikoak ez zituen alde batera utzi nahi izan.

XXI. mendearen hasieran, Kuba parte hartzen hasi zen integrazio-esparru garrantzitsuenetako bat, zalantzarik gabe, honako hau izan zen: Alianza Bolivariana para los Pueblos de Nuestra América-Tratado de Comercio para los Pueblo (ALBA-TCP).

Simón Bolívar-ek bere garaian aldarrikatu zuen proiektu kontinentala ALBA-TCP-n irudikatu zen. Proiektu kontinental hori Hugo Chávez-ek bultzatu zuen Latinoamerikarako eta Kariberako integrazio-ekimen gisa. 2004ko abenduan, orduko presidente venezuelarrak eta Fidel Castrok ALBA-TCP sortzeko baterako adierazpena sinatu zuten Habanan. Adierazpen horren ezaugarri nagusia honako hau zen: politikoki identifikatzen ziren herrialdeen arteko integrazio ekonomikoa bilatzea. Prozesu hori Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Itunaren eta Amerikako Merkataritza Askeko Eremuaren (ALCA-ren) kontra, biek Estatu Batuak buru zituztela, sortu zen (Perea, 2014: 129).

MERCOSUR, UNASUR eta CELAC (Comunidad de Estados Latinoamericanos y Caribeños) bezala, ALBA-TCP Latinoamerikako eta Karibeko proiektua da, eta, Venezuela ez ezik, Antigua eta Barbuda, Dominika, Grenada, Nikaragua, Saint Kitts eta Nevis, Saint Vicent eta Grenadinak eta Surinam ere barne hartzen ditu gaur egun (lehen Bolivia, Ekuador eta Honduras ere bai). Ekimen horren bidez, herrialde bakoitzak garapen iraunkor bateratua bultzatzeko eta elkarren arteko desberdintasuna zuzentzeko dituen abantailak baliatu nahi dira, herritar gehienen premia sozial larrienak kontuan hartuta. Horretarako, Gizarte Larrialdetarako Funtsa sortu zen. ALBAren printzipioen artean, garapena, lankidetza eta lehiarik eza daude. Beste

aldetik, ingurumenaren babesa eta Latinoamerikako eta Karibeko eskualdeetako herrien kultura eta nortasuna aldarrikatzen da (Portal Alba; ALBA-TCP, 2009: 81-86; Sader, 2006a; Vázquez, 2013; hemen aipatua: Perea, 2014: 129).

Venezuela Kubaren merkataritza-bazkide nagusia bihurtu zen (bolumen osoaren % 44 izanik). Bestalde, esportazio-produktu nagusietarako lehen merkatu bilakatu zen, hau da, osasun-zerbitzuetarako. Izan ere, aipatu behar da osasun-zerbitzuak Kubako ekonomiaren kanpo-sektorean duen eragina turismoaren eragina baino handiagoa dela (Alzugaray, 2014: 75). Karibeko bi herrialdeen arteko harremanak sendotu egin ziren. Seguru aski, Fidel Castrok Hugo Chávezekin zuen harremanak eta hurbiltasun ideologikoak eragina izan zuten horretan.

Fidel Castroren azkeen urteetan, Latinoamerika eta Karibeko herrialde desberdinekin harremanak hobetu ziren hainbat integrazio-markoren bidez, alegia, ALBA-TCP integrazio-proiektuaren bidez. Kubak testuinguru berrira egokitzen jakin zuen, eta pisu handia izan zuen integrazio-proiektu horietan. Irlarentzat onuragarria izan zen Latinoamerika eta Karibeko zenbait herrialdek ezkerrarantz egin zuten bira, eta egoera aprobetxatzen jakin zuen. Iraultza beste modu batean esportatzen hasi zen, urrun geratu baitzen herrialdeetara tropak bidaltzearen garaia.

## 3.6. RAUL CASTRO ETA MIGUEL DÍAZ-CANELEN URTEAK

Iraultzaren garaipenetik, Kubako kanpo-politika gidatu duten oinarrizko printzipioak (anti-inperialismoak, sistema aldeaniztunaren egitura aldatzeko borrokak eta Nazio Batuen sistemaren demokratizatzeak, Hegoaldeko herrialdeekiko harremanen lehensteak eta nazioarteko elkartasunak) gaur egun ere Kubaren diplomaziaren oinarrian jarraitzen duten baldintzak dira (Romero, 2017: 83).

Raúl Castro 2006ko uztailaren 31n iritsi zen presidentziara. Momentu hartan, Raúl Castrok bere herrialdeko lehen magistratura hartu zuen aldi baterako, Estatu Kontseiluen eta Ministroen lehendakaritzarekin batera. Geroago, 2008. urtean, Batzar Nazionalak berrautatu zuen karguan jarraitzeko, eta 2013an berriro hautatu zuen (Santana, 2018).

2008an, 1959tik lehen aldiz, Kubak Latinoamerikako eta Karibeko 33 estatu independenteekin harreman diplimatikoak izatea lortu zuen. Izan ere, kontuan hartu behar da Kubako lidergo politikoa gai izan zela pixkanaka-pixkanaka eskualdeko nazio guztiekin harremanak sendotzeko, Estatu Batuekin behin betiko liskarrak eragingo zizkien arazoetan sartu gabe (Romero, 2017: 95).

Kubak, gaur egun, nazioarteko sistemako eragile nagusiekin dituen harremanei dagokienez, Europar Batasunarekiko (EB) loturen hobekuntza nabarmena, Kanadarekiko harremanen sakontasuna eta Japonia, Txina eta Errusiarekiko elkarrekintzen dinamismoa nabarmendu behar dira. Hala ere, zalantzarik gabe, azken urteetako prozesurik dinamikoena eta zabalduena Estatu Batuekin harreman diplomatikoak berrezartzeari eta Kuba-AEBren arteko aldebiko loturak pixkanaka normalizatzeari buruzko akordio garrantzitsuak zehazteari buruzkoa izan da (Romero, 2017: 86). Gaur egun, ordea, Trump-en administrazioa boterera iritsi denetik, ziurgabetasun handiagoa dago harreman horietan.

2016ko abenduaren 12an, Europar Batasunak eta Kubak Elkarrizketa Politiko eta Lankidetzarako Akordioa sinatu zuten, eta, aldi berean, Europar Batasunak (EB) bi hamarkadetan zehar Kubarekiko harremanen inguruan izan zuen jarrera bateratua deuseztatu zuen. Akordioa sinatu aurretik, Kubak elkarrizketa politikoa formalizatu zuen Europar Batasuneko 24 herrialderekin (une hartan, orotara 28 ziren). Gainera, horietako 22rekin lankidetzari berrekin zion. EBrekin sinatutako hitzarmena Kubaren kanpo-politikaren lorpen garrantzitsutzat jotzen da (Romero, 2017: 86-87).

Beste alde batetik, 2016ko ekainean, Kubak eta Kanadak harreman diplomatikoen 71. urteurrena ospatu zuten. Gainera, 2016ko irailean, Shinzo Abek, Japoniako lehen ministroak, Kuba bisitatu zuen, eta horren ondorioz, akordio garrantzitsuak lortu ziren, Japoniaren eta Kubaren arteko loturetan etapa berria irekiz. Txinarekiko harremanei dagokionez, Kubak Txinarekin dituen loturak, Kubako agintarien arabera, estrategikoak eta multifazetikoak dira politikan, eta dibertsifikatzen eta sakontzen ari dira ekonomiaren eta lankidetzaren arloan. 1969ko irailaren 28an, bi herrialdeek harreman diplomatikoak ezarri zituzten, eta Kuba izan zen Txinako Herri Errepublika onartu zuen Latinoamerikako lehen Estatua. Gaur egun, Txina da Kubaren bigarren kontraparte

komertziala, eta garapenaren eta ekonomia nazionalaren hainbat arlotan duen parte-hartzeak bazkide estrategiko gisa berresten du (Romero, 2017: 87-90).

Zalantzarik gabe, Gerra Hotzeko bi potentzia handiekiko harremanak aldatu egin dira. Kubaren eta Errusiaren arteko harremanak adiskidetasuna eta lankidetza lotura historikoetan oinarrituta daude. Harreman horien oinarria Errusiako Federazioaren eta Kubako Errepublikaren arteko 1996ko harremanen printzipioen adierazpena eta 2009ko lankidetza estrategikoko printzipioei buruzko Memoranduma da. 2012an, Errusiako eta Kubako gobernuen arteko lankidetza ekonomiko-komertzialerako eta zientifiko-teknikorako programa sinatu zen, 2020ra arte iraun behar duena, eta horrek ezartzen ditu epe ertainera eremu horietan izango diren elkarrekintza-norabide nagusiak. Beste aldetik batetik, Kubaren eta Estatu Batuen arteko harremanei dagokienez, 2015. eta 2016. urteetan, alde biko harreman diplomatikoak berrezartzeko erabakitik abiatuta, bi herrialdeen arteko akordioen, harremanen eta elkarrekintzen sare garrantzitsua eratu zen. Harreman berri horiek eta 1962 eta 2014 artean, hau da, 50 urte baino gehiagoko epe luzean, eman ziren harremanak erkatu ondoren, adierazi daiteke egoera oso desberdina adierazten dutela. Hala ere, 2017ko ekainaren 16an, harreman horrek aldaketak izango zituela ikusi zen. Trump presidenteak Miami-n bere gobernuak Kubarekiko harremanetan aplikatu nahi zuen “politika berria” iragarri zuen, hau da, Obamaren kanpo-politika Kubarekiko desegitea (Romero, 2017: 91-93).

Latinoamerika eta Karibeko inguruari dagokionez, Kubak hainbat herrialdekiko harremanak sendotzen jarraitu du. Kuban, 2010etik 2015era bitartean egindako ondasunen esportazioen % 40 baino gehiago Latinoamerikara bideratuta zeuden. Eskualdea, berriz, Kubak 2014ra arte egindako kanpo-erosketen erdiak baino gehiagoren jatorria izan da, nahiz eta kopuru hori nabarmen murriztu den (14 puntu portzentual baino gehiago) 2015erako (Romero, 2017: 95-96). CARICOM eta ALBA-TCPren parte diren herrialdeekiko harremanak handituz joan dira Raúl Castroren presidentetzan. Harreman horiek mesede egin die bai Kubari bai erakundeetako kide diren herrialdeei. Erakunde horien bidez, Irlak bere ideiak inguruko herrialdeetan ezagutarazi ahal izan ditu.

Kubako gobernuak gai gatazkatsuetan solaskide eta bitartekari gisa duen gaitasuna nabarmena da Latinoamerikan eta Karibean. 2013an, Raúl Castro hautatu zuten Sebastián Piñeraren ondorengoa izateko CELAC-en. Hala, Castro CELAC-en lehendakaria bihurtu zen. Gainera, 2014ko urtarrilean, eskualdeko erakunde horren gailurra Habanan ospatu zen. Gailur hartan, Kubaren ekimenez, eskualdea *Zona de Paz* ('Bake Eremua') hartu zuten. Beste alde batetik, Kubako diplomaziak, Norvegiarekin batera, Kolonbiako gobernuaren eta herrialde horretako gerrillarien arteko elkarrizketen sustapenean parte hartu zuen, eta, gainera, jarduera horien emaitzak onuragarriak izan ziren (Alzugaray, 2014: 72).

2018ko apirilaren 18 eta 19ren artean, Kubako Errepublikako presidentetzan hamar urte egon ondoren, Rául Castrok kargua utzi zuen. Hala ere, Kubako Alderdi Komunistako idazkari nagusi izaten jarraitu zuen (Santana, 2018). Bere ordez, Herri Boterearen Batzar Nazionalak (ANPP-k) Miguel Díaz-Canel izendatu zuen Estatu Kontseiluetako eta Kubako ministroetako presidente, ordura arte gobernuaren presidenteordea izan zena. Momentu horretan, Kuba bere bilakaera historikoaren fase berri batean sartu zen; izan ere, 60 urtetan, lehen aldiz, "historikoak" deitutakoen parte ez zen lider bat boterea hartu zuen. Hala ere, Díaz-Canel bizitza nazionalean dauden historikoen eta prozesuan sortu diren belaunaldi berrien arteko lotura gisa agertu da (Pérez, 2018: 1).

Díaz-Canel jarraitutasun-irudi gisa finkatu da, trantsizio-irudi gisa baino gehiago. Denboraldi honetan, gutxienez, Presidenteak ez du erreformaren irudia erakutsi, eta Kubako Alderdi Komunistaren (PCC) aurreko printzipio eta egiturei eutsi die (Duany et al., 2019: 9).

Díaz-Canelen gobernuak erronka handiak izan ditu bere kanpo-politikan. Kuba eta Estatu Batuen, Donald Trumpen administrazioaren menpe dagoenaren, arteko harremanen narriadura bere punturik gorenera iritsi zen 2019ko apirilaren 17an, iragarritako Helms-Burton Legearen III. titulua ezarri zenean. Bestalde, Venezuelako, Kubako bazkide komertzial eta aliatu ideologiko nagusia deneko, krisialdi ekonomiko eta politikoak Irlako hazkunde ekonomikoaren etorkizuna kaltetu du. Aipatutakoa bi arrazoirengatik izan da batez ere. Alde batetik, Venezuelatik petrolio-inportazioak

murriztu egin dira eta, Kubaren aldetik, zerbitzu profesionalen esportazioa, gehien bat medikuena, txikiagotu egin delako (Duany et al., 2019: 10).

Kuba oso aktibo dago Nazio Batuen sisteman. Europar Batasunarekin diplomazia konplexua du, baina harreman onak izan ditu Mexiko eta Kanadarekin, hau da, TLCANen esparruan Estatu Batuetako bazkideak direnekin. Beste alde batetik, Estatu Batuekin dituen harremanak saihesten ditu eta ahal den neurrian hausten ditu Latinoamerika eta Karibeko herrialdeekin dituen harremanen bitartez. Kubak Karibeko ekonomien artean presentzia izan nahi du, baina, betiere, Latinoamerikako eta Karibeko beste gobernuekin lankidetzan (Domínguez, 2009: 240).

Hiru desberdintasun nagusi daude Kubaren eta Latinoamerikako beste herrialde batzuen artean, nazioarteko arloan. Lehenik eta behin, Kubak sistema politiko oso zentralizatua du, bere herrialdeko globalizazioaren eragina blokeatzeko edo geldiarazteko gai izan dena. Bigarrenik, oso zentralizatuta zegoen sistema politiko berari esker, gobernuak aktore arrazional bateratu gisa jokatu ahal izan zuen. Azkenik, 1980tik aurrera, Kubako Amerikako Estatu Batuetarako diasporak, batzuetan, Kubarekin zerikusia duen AEBko politikaren diseinua eta edukia kontrolatu ditu, eta, horrez gain, inoiz ez dio utzi esparru horretan eragiteari (Domínguez, 2009: 340). Inguruko gainerako herrialdeekiko hiru desberdintasun horiek direla eta, Kuba gai izan da kanpo-politika sendo eta egonkor bati eusteko, eta horrek sentimendu iraultzaileari eta Iraultza esportatzeko helburuari bizirik eutsi die.

Hala ere, gogoan izan behar da Díaz-Canelen presidentetzaren etorkizuna ez dagoela finkatuta, nahiz eta jarraitasun-irudi gisa finkatu den. Presidenteak presio kontrajarrien artean gobernatu beharko du herrialdea, eta Alzugarayk dioen bezala: <<a Fidel se le perdonaba todo, a Raúl casi todo, pero a él no se le va a perdonar tanto>> (Alzugaray, 2018; hemen aipatua: D. Olmo, 2018).

## 4. NIKARAGUAKO HISTORIA ETA IRAULTZA SANDINISTA

Kubaren eta Nikaraguaren harremanak aztertu aurretik, Nikaraguako historia eta Iraultza Sandinista aztertuko dira, Herrialdea zer egoeratan bizi zen Iraultza eman aurretik, bitartean eta ondoren ezagutzeko asmoz. Era horretan, azken hamarkada hauetan, Nikaraguak Kubarekin izandako harremanak hobetu ulertuko dira.

Nikaraguako historiari dagokionez, lau fase desberdinetan banatu da, atala ulergarriago izateko: Nikaragua sandinismoaren aurretik, sandinismoa, kontrairaultzako urteak eta gaur egungo "ortegismoa".

### 4.1. NIKARAGUA SANDINISMOA AGERTU AURRETIK

Nikaragua herri babesgabe, txiki, ahul eta zapaldu bezala definitua izan da beti. Gainera, bere historiaren zati handi batean, botere inperialista baten aurka bizi izan da (González, 2010: 232). Herrialdeak hainbat askapen-guda bizi izan ditu; horien artean, lehenengoa 1855ean izan zen. 1926an Sandinok, "sandinismo"-ari izena eman zion iraultzaile eta pentsalariak, Armada Liberal Konstituzionalean sartu zen, baina desadostasun batzuen ondorioz, Sandinok eta bere gizonek armak hartu eta "Los Montañeses" taldea sortu zuten (Schroeder, 2013: 39).

1926 eta 1933 bitartean, Nikaragua Estatu Batuen kontra borrokatu zen herrialde horretatik askatasuna lortzeko helburuarekin, 1912tik AEBko tropak Nikaraguan baitzeuden. Guda horren buru Sandino zen, eta bere idatziak giltzarri izan ziren bere izena daraman ideologiaren oinarriak sustatzeko (Gónzalez, 2015: 102).

1928ko La Habanako konferentzia panamerikarrean, Amerikako Estatu Batuen (AEB) interbentzio militarra Nikaraguan onuragarria zela adostu zen, nikaraguarrak euren kontu politiko eta ekonomikoak maneiatzeko atzeratuak eta heldugabeak zirela argudiatuz.

1929an, New York-eko *krakak* zuzenean jo zuen herrialdean. Prezioak guztiz ezegonkortu ziren, baita kafearena ere, momentu hartan esportaziorako produktu bakarra zena. Horrek menpekotasun ekonomiko zuzenera eraman zuen, eta, ondorioz, menpekotasun ideologikora. Nikaraguako menpekotasun inperialista herrialdearen

baliabide naturalaren gainean dauden interesen ondorioa izan da (González, 2010: 234).

Nikaraguaren gainean dagoen menderatze inperalistak ez zituen, ordea, herrialdean dauden arazoak konpondu. Tradizionalki, herrian, bidegabeko lurren banaketa zegoen, soldata baxuak eta osasun eta hezkuntza eza. Era horretan, borroka antiinperialista Nikaraguako justizia sozialarekin zuzenean lotu zen. Borroka hori ez zen eman testuinguru sozial eta ekonomiko batetik isolatuta, helburua subiranotasuna eta autodeterminazioa lortzearekin lotuta egoteaz gain (kontzeptu liberaletan ezagutzen den bezala), herrialdeak bizi zuen bidegabekeriekin ere lotuta zegoen (Ramírez, 1980: 12).

Sandinok ez zuen lortu Nikaraguan zegoen iritzi publiko urriaren laguntza. Atzerriko interesekin bizikidetasuna zuten taldeek Sandino estigmatizatzen zuten bidelapur bezala, bere borrokak ez zuela inolako eduki politikorik eta porrotera zuzenduta zegoela esanez (Navarro, 1991: 44). 40. hamarkadaren hasieran, Somozak *Sandino el calvario de las Segovias* liburua argitaratu zuen. Liburu horrek eragin handia izan zuen Nikaraguan, eta aipu-galtze handia ekarri zuen Sandinoren borrokan.

## 4.2. SANDINISMOA

Augusto César Sandino-ren pentsamendua XX. mendeko 60. hamarkadatik aurrera garatzen hasi zen Nicaraguan Carlos Fonseca-ren eskutik. Fonsecak *Ideario político de Augusto César Sandino* liburuan bildu zituen Sandinoren hitzak eta hortik aurrera entzuten hasi zen “sandinismo” hitza. FSLNak (Frente Sandinista de Liberación Nacional) Sandinoren irudia berreskuratu zuen 60. hamarkadan, Somoza familiaren diktaduraren aurka zegoen oposizio guztia biltzeko asmoz. Beraz, pentsamendu sandinista garai hartan ematen hasi zen, eta Sandino ustiapen inperialistaren aurka zegoen erresistentzia nazionaleko lider bezala agertu zen.

FSLNko lehenengo buruzagi horiek Iraultzaren taktika eta estrategien gainean eztabaidatu zuten. Horrek askapen mugimenduaren barnean desadostasunak sortu zituen. Desadostasun horiek denborarekin tendentzia politiko bihurtu ziren, eta, 70.

hamarkadan, hiru korronte publiko eratu ziren: Guerra Popular Prolongada (GPP), Tendencia Proletaria (TP) eta Tendencia Insurreccional (TI) (Hellmund, 2013: 153).

Somoza familiaren diktadurak monopolio estatubatuarrak Nikaraguan zuen kontrolaren mantenuari laguntzen zion. Aldi berean, bere diktadurak orden soziala bermatzen zuen errepresio politikoaren bitartez, eta, herrialdearen barnean, diktadura oligarkia lur-jabearen adierazpena zen. Anastasio Somoza AEBk herrialdean egiten zuen kontrolaren alde jarri zen, bai militarra bai estatuko aparatu burokratikoarena.

Sandinismoak Guardia Nazionala izan zuen aurrean. Guardia Nazionala Estatu Batuetako gobernuak sortu zuen 1927ko abenduan, antolaketa militarra eta poliziaren zereginak betetzeko. Somozaren diktaduran, familiaren armada pribatua izan zen. Indarren kopurua handitzen joan zen borroka armatua areagotzen zen heinean, eta borrokaren azkenengo etapan 14.000 kide zituen. 1979ko uztailaren 19an desagertu zen diktadurarekin batera (Bacchetta, 1986: 24).

1975ean, enpresa-munduko eta Eliza katolikoko kide nabariak, hala nola, Obando y Bravo kardenala, Somozaren erregimenaren aurreko atsekabea adierazten hasi ziren, FSLNaren ekintzei legitimitate morala emanez, jada beste talde sozial batzuek aurretik azaldu zuten moduan (Martí i Puig, 2002: 7). Momentu horretan, oposizio politiko guztia bildu zen fronte bakar batean, Pedro Joaquín Chamorro buru zuelarik. 1978an Somozaren erregimenak liderraren hilketa agindu zuen.

Gertaera horrek desordenak eta diktaduraren kontrako manifestazioak ekarri zituen. Gainera, herrialde osoan greba orokorra eta altxamendu armatuak egiteko saiakerak egon ziren. Somozak herrialdearen kontrola mantendu arren, bere erregimenak zabu egiten zuen eta nazioarteko oposizioa ere progresiboki handitzen zen.

Erregimen Somozistak matxinadei errepresio handiarekin erantzun zien, beste gauza askoren artean, zibilak bonbardeatuz. Operazio horien ondorioz, hamaika nikaraguar FSLNra batu ziren eta nazioarteko presioa handitu zen, gatazkari konponbide negoziatua emateko presioa eginez.

1978an, Kubaren laguntzarekin batze-prozesua aurrera eraman zuten. Era horretan, berriro ere hiru tendentziak batu egin ziren. Komunikatu publiko baten bitartez Dirección Nacional Conjunta (DNC) sortuko zutela esan zuten. DNCan tendentzia

bakoitzeko hiru ordezkari egongo zirela erabaki zen: GPPtik Tomás Borge, Henry Ruiz eta Bayardo Arce, TItik Daniel Ortega, Humberto Ortega eta Victor Tirado eta TPtik Jaime Wheelock Romás, Luis Carrión eta Carlos Nuñez (Hellmund, 2013: 154).

FSLNak matxinada burutu zuen herrialdean, ezkerreko ideologiako gerrillen bidez. Horrek herriaren babes zabala zuen, eta 1979ko uztailean Somoza diktaduraren erorketaren protagonista izan zen (Soto, 1987: 81). FSLNak boterea hartu eta aldaketa politiko, sozial eta ekonomiko berriak sartu zituen herrialdean, oinarri sozialistak zituztenak. Gobernu iraultzaileak nekazal-erreformak partzialki gauzatzea lortu zuen, eta alfabetatze-programak eta osasun-planak ezarri zituen. Hala ere, sistema ekonomiko mistoa ezarri zen herrialdean (Gosostiaga, 1989: 33).

## 4.3. KONTRAIRAULTZA

Sandinistek boterea hartu zutenetik armatutako oposizioari aurre egin behar izan zioten. Hasiera batean, Hondurasen kokatuta zeuden Guardia Nazional zaharreko talde txikiak baino ez zituzten aurrean. Ordea, 1981aren amaieran, indar horiek Argentinaren partetik entrenamendu militarra jaso zuten, eta, gainera, AEBtik laguntza zuzena zuten.

1980ko hamarkadaren erdialdean, Nikaraguako Gobernuaren ahaleginak kontrairaultzaileekin amaitzeko erabat handitu ziren. Kontrairaultzaileak “Contra” bezala ezagunak ziren, eta Estatu Batuek lagunduta herrialdearen Gobernua lortzen saiatu ziren. Bestetik, AEBk merkataritza blokeoa inposatu zuen herrialdean, eta nazioarteko erakunde finantzario askoren maileguak blokeatu zituen (Krujit, 2011: 71).

Sandinistek armada antolatu zuten mehatxuei erantzuteko. Armadak Sobietar Batasunaren eta Kubaren armak jasotzen zituen. Bestalde, 1983an, nahitaezko soldadutza ezarri zuten (El País, 1983).

1984ko azaroan, hauteskundeak egin ziren. Oposizioak hauteskundeei boikota egin zien sandinistek prozesua manipulatu zutela argudiatuz. Hala ere, sandinismoak sekulako garaipena lortu zuen, bai presidenterako bozketan bai Kongresuaren ordezkariarenean. Daniel Ortega Nikaraguako presidente izendatu zuten botoen % 67arekin, eta FSLNak aulkien gehiengoa lortu zituen Asanblea Nazionalean.

Nazioartean, horrek sandinistei legitimitatea eman zien; ordea, AEBko Gobernua sandinisten aurka agertu zen (Font eta Gomà. 1991: 52).

1990ean, herrialdea kolapso ekonomikoko zorian zegoen. Urte hartan, sandinismoak hauteskundeak galdu zituen. Unión Nacional Opositora (UNO), hau da, oposizioan zeuden 14 alderdien koalizioa, izan zen hauteskundeen irabazlea, Violeta Barrios de Chamorro buru zuelarik. Chamorroren Gobernua sandinistekin elkarlanean aritzen saiatu zen, baina jarrera horrek bere alderdiaren baitan zeuden talde kontserbadoreen ezegonkortasuna ekarri zuen, eta koalizioaren hautsi egin zen (Andorson eta Dodd, 2002: 207).

Sandinismoak aztarna sakona utzi zuen herrialdean. Hala ere, FSLNak hauteskundeak galdu zituenean, Iraultzaren amaiera eman zen. Iraultzak aldaketa sakon eta iraunkorrak eragin zituen Nikaraguan. Somozaren dinastia, 40 urtetan zehar herriaren agintean egon zena, erori zen sandinismoari esker eta Guardia Nazionala desegin zen. Alfabetismo-maila nabarmen txikiagotu zen eta, baztertutako taldeak herri-bizitzan modu aktiboago batean parte-hartzen hasi ziren (González, 2010: 259).

## 4.4. GAUR EGUNGO EGOERA: “ORTEGISMOA”

2006an, Daniel Ortegak hauteskunde presidentzialak berriro ere irabazi zituen eta bere garaipena, “kristautasun, sozialismo eta solidaritatearen” garaipena bezala definitu zen. Aipatu den bezala, alderdiaren diskurtsoa moderatua da, hau da, sandinismoaren kapital politikoarekin bukatu da, ideologiaren morala, elkartasuna eta duintasuna alde batera utziz. Hala ere, diskurtsoan, Iraultzaren ideala mantentzen da, pobreei eta miserian dauden horiei bideratuta dagoena (Close, 2012: 62).

Azkenengo urteetan, FSLN herriaren babes politiko handia duen alderdi politiko bezala egonkortu da, edo, gutxienez, hori diote hauteskundeen emaitzek. Bestetik, oposizioa zatikatuta dago eta alderdi liberalek indar handiena dute. Partido Liberal Independiente (PLI) oposizioaren buru da, Coalición Nacional por la Democracia (CND) koalizioaren buru duena. Koalizioan, demokrata kristauak eta liberalak daude. Beste alde batetik, Unidad Liberal Republicana y Sindical dago. Bere baitan alderdi eta

mugimendu sozialak daude eta Partido Liberal Constitucionalista (PCL) alderdia da burua (González, 2010: 251).

FSLNak herrialdeko ezkerraren erreferentzia izaten jarraitzen du, eta horrela izaten jarraituko duelako itxura du panorama politikoan, ez baitago sandinistei aurre egiteko indarra duen alderdi edo koaliziorik, eta, are gutxiago, ezkerretik.

Hala ere, Ortegaren alderdia oso zatituta dago, eta kideek eta kide ohiek zalantzan jartzen dute etengabe. Daniel Ortega izan ezik, kide ohiak, hau da, "historikoak", ez daude alderdiaren buruan edo, zuzenean, FSLNtik kanpo daude. Alderdiaren politikan eta joeran kontraesan handiak egon ziren, batez ere, barne-demokrazia eta borroka politiko eta sozialaren gaineko gaietan. Horrek bi zatiketa eragin zituen: alde batetik, 1995an sortutako Movimiento Renovador Sandinista eta, bestetik, 2005ean Movimiento por el Rescate del Sandinismo, El Rescate bezala ezagutzen dena. Bi zatiketa horiek euren arteko aliantzak bilatzen dituzte, eta baita beste ezkerreko mugimendu batzuekin ere, FSLNak Nikaraguan duen ezkerreko posizio hegemonikoarekin bukatzeko asmoz (Torres-Rivas, 2007: 9).

Nikaraguan, 2016ko azaroaren 6an egindako hauteskundeetan, berriro ere Daniel Ortega irabazlea izan zen. Kasu horretan, bere emaztea, Rosario Murillo, presidenteordea izan zen. Herrialdean burutu diren azken hauteskunde horietan, oposizioak herritarren % 35ek baino ez zuela parte hartu esan zuen. Aldiz, Hauteskunde Kontseilu Gorenak % 68,2ko parte-hartzea egon zela adierazi zuen. Era honetan, Daniel Ortegak botoen % 72,44 lortu zuen, eta kargua berretsi egin zuen. Bestalde, FSLNak 92 diputatutik 71 lortu zituen Asamblea Nazionalean (Martí i Puig, 2018: 303-304).

Gaur egun, "ortegismoa" deitzen duten hori FSLNaren buruzagitzan dago, Nikaraguako Iraultzaren ostean ezagutu zuten ezkerretik oso urrun dagoena. Daniel Ortegak 2007an presidentzia hartu zuenean, kapitalarekin aliantza handia egin zuen, munduko eskuinak txalokatu zuena. Gainera, bere boterea bermatzeko, Ortegak bere burua etengabe berrautatu du, eta horrek, diktadura somozista oraindik oroimenean dagoen herrialdaean, bere presidentetza errefusatzea ekarri du (Baltonado, 2018).

Beraz, Daniel Ortega eta bere emaztea, Rosario Murillo, gaur egungo Nikaraguako presidente eta presidenteordea dira eta horiek dira herrialdearen norabidea finkatzen dutenak. Hala ere, lehen aipatu bezala, ortegismoa Iraultza garaiko sandinismotik oso urrun dago. Izan ere, Monica Baltonadok, komandante sandinista izan zenak, hauxe esan zuen gaur egungo egoerari buruz:

> <<Ellos se seguirán llamando sandinistas, así como dicen que su gobierno es *cristiano, socialista y solidario*. Pero eso no es más que un eslogan mentiroso. Sus prácticas, sus acciones, lo único que hacen es desprestigiar los términos y enterrar bajo la sangre inocente de esos cientos de nicaragüenses, entre ellos varios niños, al FSLN, a la organización que un día dirigió al pueblo hacia la liberación>> (Baltonado, 2018).

Hala ere, FSLNak gizarte-babes handia dauka, edo, gutxienez, hori diote hauteskundeen emaitzek. Gainera, 2021eko hauteskundeei begira, egindako inkestek ortegismoa indartzen dute. Izan ere, M&R Consultores aholkularitza-enpresak egindako inkestaren arabera, Ortegaren alderdiari % 63,5eko onarpena eta boto-asmoa eman dio 2021erako (Telesurtv, 2019).

## 5. KUBAREN KANPO-POLITIKA NIKARAGUAREKIKO

Aurretik aztertu dugun moduan, Kubaren kanpo-politika, Estatu iraultzaile bezala, hein handi batean, Iraultza esportatzera bideratua egon da. 1959ko Iraultzaren garaipenetik, Kuba nazioarteko borroka iraultzaile eta sozial askorekin harremanetan egon da. Gizarte-arloko lorpenak "esportatzeko" saiakera hori iraultzaren praktika internazionalistaren parte izan da, eta internazionalismo iraultzailearen eta hegoaldeko lankidetzaren paradigma bihurtu da (Perea, 2014: 242).

Kubak, askapen-mugimenduetan izan zuen presentzia eta babesaren ondorioz, askapen-mugimendu horietatik atera ziren gobernuekin harremanak izan ditu gaur egunera arte (Vadillo, 2011: 71-72; hemen aipatua: Perea, 2014: 244). Latinoamerika eta Karibearen kasuan, Irlak harremanak izaten jarraitu du zentro eta ezkerreko gobernuekin, eta, gainera, zuzeneko loturak sustatu ditu gizarte-mugimenduekin.

Nikaraguako Iraultzari Fidel Castrok egin zizkion lehen gorespenek azpimarratu zuten Iraultza hori eta kubatarra ez zirela berdinak alderdi askotan (Domínguez Reyes, 1990: 101). Izan ere, FSLNren helburuetako bat honako hau zen: prozesu iraultzailea burgesiaren sektoreei erabaki-ahalmenik eman gabe bideratzea. FSLNren erronketako bat Nikaraguako elite ekonomikoak eragin politikorako gaitasunik ez izatea zen, horiek "klase ekoizle" bihurtuz (Martí i Puig, 1997: 122). FSLNa prest zegoen burgesiarekin Iraultza partekatzera, eta euren ekoizpen-bideen jarduera onartzea. Hala ere, FSLNak bi eskaera horiek onartuko zituen burgesiak herri-egitura errespetatzen bazuen. Alabaina, akordio horiek oso urrun zeuden Kubako Iraultzaren asmoetatik.

Atal honetan, Kuba eta Nikaraguaren harremanak aztertuko dira Iraultza aurreko eta Iraultzako urteetan. Ondoren, Sobietar Batasunaren eta Nikaraguaren arteko harremanak ikertuko dira, alde batetik, harreman horien helburua Kubak Nikaraguarekiko zuen berbera zen egiaztatzeko, eta, bestetik, bere eragina Nikaragua eta Kubren arteko harremanetan aztertzeko. Ostean, Nikaraguaren sarrera ALBA-TCPn aztertuko da, eta, amaitzeko, COVID-19aren testuinguruan ematen ari diren harremanak ikertuko dira.

## 5.1. IRAULTZA AURREKO URTEAK

Kubarentzat, Nikaragua bezalako herrialdeak oso garrantzitsuak dira. Kubak Karibeko eta Latinoamerikako herrialdeekin antzeko kultura-ezaugarriak, hizkuntza, historia (Espainiako kolonialismoari eta Ipar Amerikako esku-hartzeei eta neokolonialismoari dagokienez) eta antzeko baldintza sozioekonomikoak partekatzen ditu (Domínguez Reyes, 1990: 97).

1959aren hasieran, FSLN formalki fundatu aurretik, Carlos Fonseca Kubara joan zen, eta han Che Guevararekin lankidentzan aritu zen (Prevost, 1990: 122). 1959ko ekainean, Kubatik abiatu zen 60 bat gizon armaturen espedizio bat, eta Honduraseko kostan lehorreratu zen. Bi astez kanpatu zuten han, benetako helburua lortzeko zain: Nikaraguara heltzea, mugaren beste aldean zegoena. Espedizionarioak Nikaraguako erbesteratuak ziren batik bat, eta horien artean Carlos Fonseca zegoen. Hala ere, kubatar eta guatemalar gerrillariak ere bazeuden. Espedizionario horien guztien helburu nagusia Luis Somoza Debayle-ren agintaldia deuseztatzea zen. Honduraseko gobernuak soldaduak bidali zituen gerrillariak zeuden kanpamentura, eta eraso egin zieten. Carlos Fonsecak gertaerari buruz zera esan zuen: <<no fue una batalla, fue una masacre>>. Bizirik atera zirenetako batzuk Kubara itzuli ziren egonaldi luze baterako. Han entrenamendu militarra jasotzen jarraitu zuten eta Nikaraguako beste erbesteratu batzuekin elkartu ziren (Bermúdez, 2019).

Kubak, Iraultzaren lehenengo urteetan, antolatzen zituen espedizio guztiek porrot egiten zuten, ideologia eta estrategia argirik ez zituztelako. Kontinenteko elkartasun-espiritua eta ongi pentsatutako estrategiarik eza direla eta, ahalegin baldarrak eta alferrikakoak egin ziren Latinoamerikan Iraultza sustatzeko.

Kubak FSLNa bezalako taldeekin harremanak izan zituen, kasu honetan, 1961tik, hau da, sortu zenetik (Halliday, 1999: 120). Egia esan, FSLNk, hasieratik, Kubako esperientzia armatuarekin gehiegi egiten zuen bat (Borge, 1989: 185-186). Tomás Borgek, FSLNaren fundatzaileetako batek, hauxe esan zuen Iraultza Sandinista eta Kubako Iraultzaren loturaren inguruan:

> <<La victoria de la lucha armada en Cuba representó el levantamiento de inumerables velos, un destello de luz que permitió ver más allá de los

> simples aburridos dogmas de entonces... Vimos en Fidel la insurrección de Sandino, la respuesta de nuestras dudas, la justificación de nuestros sueños>> (Borge, 1982: 46; hemen aipatua: Martí i Puig, 1997: 79).

FSLN sortu zen urteetan, Kuba Amerikako Estatuen Erakundetik kanpo eta Mendebaldeko Hemisferiotik isolatuta geratu zen. Bestalde, Iraultza esportatzeko ahaleginak areagotu zituen. Ahalegin horiek Nikaraguari emandako laguntzan islatu ziren.

Hurrengo urteetan (1963-1966), Kubak adostasun handia izan zuen Latinoamerikako alderdi komunistekin, eta gerrilla sustatu behar zen herrialdeei buruzko akordioak egin zituen (Mesa-Lago, 1979: 29-30). Nikaragua zen herrialde horietako bat. Iraultza kontinentala ezinbesteko premisa zen Kubako sozialismoaren biziraupenerako; hori dela eta, Nikaragua bezalako herrialdeei laguntzeko beharra handiagotu zen.

Hala ere, barneko (Kubako ekonomiaren narriadura) eta kanpoko (Che Guevarararen heriotza Bolivian) politiken hondamendiek Kubako buruzagitza behartu zuten euren kanpo-politika batzuk berraztertzera. Iraultza kontinentala oraingoz ezinezkoa zela ikusi izan zen, eta hain idealista ez zen beste politika bat sortzera behartuta ikusi zituzten euren buruak: Latinoamerikarekiko konpromisoa areagotzea. Horregatik, aldaketa iraultzailerako (foko-gerrillariaz gain) beste bide batzuk ere onartu zituzten, hala nola hauteskunde baketsuak eta kolpe militarrak. Hala ere, 1966. eta 1970. urteen bitartean, bai Iraultzaren esportazioari, bai Latinoamerikako talde iraultzaileei emandako laguntza gutxitu egin zen (Mesa-Lago, 1979: 26-27). Aldiz, FSLNren laguntzak bere horretan iraun zuen. Kubak benetako interesa zuen Nikaraguak bere diktadurarekin amaitu zezan. Izan ere, modu horretan, Iraultza herrialdera esportatu ahal izango zuen.

Buruzagia, Carlos Fonseca Amador, eta talde horretako beste kide batzuk Kuban entrenatuak izan ziren. Gainera, harreman horrek 1976tik aurrera ere, Fonseca Amador hil ondoren, jarraitu zuen. 1977an, Kuba FSLNak Nikaraguan hartutako dinamismo berriaz jabetzen hasi zen, eta elkartasun-ekintzak antolatzen hasi zen. Hala ere, Nikaraguako borrokari Kubak egin zion ekarpen nagusia ez zen izan entrenamendu gisa, baizik eta politika arloan (Leogrande, 1980: 12).

Aurretik aipatu den bezala, 60. hamarkadan, FSLNeko buruzagiek iraultzaren taktika eta estrategiari buruz eztabaidatu zuten, eta horrek askapen mugimenduaren barnean desadostasunak eragin zituen. Desadostasun horiek denborarekin tendentzia politikoak bihurtu ziren, eta 70. hamarkadan, hiru korronte publiko desberdin sortu ziren: Guerra Popular Prolongada (GPP), Tendencia Proletaria (TP) eta Tendencia Insurreccional (TI) (Hellmund, 2013: 153). 1978an, Kubako buruzagiek bitartekari-lana egin zuten FSLNaren hiru korronteak bateratzeko. Horri esker, gerrillak landa-eremuan egiten zituen jarduerak hirietako jarduerekin (auzoetan, lantegietan...) koordinatu ziren (Marti i Puig, 2002: 15-16; Hellmund, 2013: 154).

Kubak Nikaraguako arlo politikoan ekarpen handiak egin zituen Iraultza esportatzeko asmoarekin. Izan ere, Kubaren eragin nagusiena politikoa izan zen, militarra edo finantzarioa izan beharrean. Izan ere, Kubaren laguntza handiena tendentzien bateratze-prozesuan eman zen. Azken eginkizun horrek garrantzi handia izan zuen 1979an, sandinistek boterea eskuratu zutenean.

Kubako kanpo-politika, ordea, pragmatismora itzuli zen. Iraultzaren esportazioa ia amaitu zen; gerrilla ez ziren bideak onartu ziren Iraultza egiteko, eta harremanak berrezarri ziren Latinoamerikako gero eta herrialde gehiagorekin.

## 5.2. IRAULTZA URTEETAN

1979an, 18 urteko borroka ondoren, FSLNak Somoza familiaren diktadurarekin behin betiko amaitu zuen. Somoza familia herrialdeko talde burges handiena zen, eta Nikaraguako ekonomiaren % 90 monopolizatzen zuen. Managua Latinoamerikako egoitza iraultzaile bihurtu zen, Kubaren babesarekin, zeinak Nikaraguari beste erakunde iraultzaile batzuekin harremanak, inteligentzia-zerbitzuak, ekipamenduak, entrenamendua, armak, pertsonal militarra eta aholkularitza eskaini zizkion (Minà, 1998: 98,108,109; hemen aipatua: Perea, 2014: 125). Garaipen sandinista, zalantzarik gabe, Kubaren Latinoamerikako eta Karibeko internazionalismo militantearen momentu arrakastatsuenetarikoa izan zen (Halliday, 1999: 120).

Kubak elkartasuna finkatu zuen sandinisten garaipenaren ondoren. Harremanaren agerpen nabariena Nikaraguako kanpoko laguntza-programa eta Nikaraguaren

eraginez Irlak AEBekin izandako eztabaidak izan ziren. 1979ko uztailaren 25ean, 90 tona janari zeramatzan hegazkin kubatar bat lurreratu zen Managuan, 60 mediku eta erizain ere zeramatzala. Urtea amaitu baino lehen, mila maisu, arrantzarako teknikari batzuk eta, ustez, Kubako lehen aholkulari militarrak Nikaraguara iritsi ziren (Domínguez Reyes, 1990: 102).

1980an, Kuba Nikaraguarekiko laguntza formalizatzen hasi zen, laguntza ekonomiko, zientifiko eta teknikoko hitzarmenak sinatuz. Kubako Gobernua ahalegindu zen Nikaraguak bere premiazko beharrak ase zitzan. Horren harira, urte horretako urtarrilean, 10.000 tonako edukiera zuen merkataritza-ontzia eman zion, barruan premiazko produktuak zeramatzana. Urte bereko apirilean, 2000 kubatar zeuden Nikaraguan, gehienak alfabetatzeko kanpaina sandinistan laguntzen saiatzen ziren irakasleak ziren, baina osasuneko langileak eta bestelako aholkulariak ere bazeuden. 1983an, lau mila kubatar inguru zeuden Nikaraguan. Fidel Castrok esan zuen erdia maisuak zirela, zazpirehun eta berrogeita hamar medikuak, eraikuntzarako mila langile eta berrehun aholkulari militar (Castro, 1983). Hala ere, Castrok, Iraultzaren Defentsarako Batzordeen II. bileran jakinarazi zuen Kubak ez zuela bidali Nikaraguara bere indar eliteen edo bestelako indarren soldadurik; alegia, Kubak ez zuela inolako troparik bidali Nikaraguara (Fidel Castro, 1979; hemen aipatua: Domínguez, 2009: 196).

Nikaraguak 1979an Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduan (LGHM) sartzeko eskaera egin zuen. Urte horretan, Mugimenduaren VI Goi-Batzarra Habanan ospatu zen, Fidel Castro buru izanik. Kubak, Nikaraguarekin izandako harremanen ondorioz eta bere nazioarteko kanpo-politika jarraituz, Nikaraguak Mugimenduan sartzeko egindako eskaera babestu zuen (Alburquerque eta Coloma; 2018: 19).

Kubak Nikaraguari laguntzen zion eskura zituen balibideekin, hau da, giza-baliabideekin. Helburua ez zen Nikaraguako behar guztiak asetzea, bazekitelako ezin zutela egin, baizik eta berehalako beharretan laguntzea eta premiazko erreformak aurrera eramateko behar zituzten baliabideak ematea. Ondorioz, Kubako laguntza batez ere hezkuntza-, osasun- eta segurtasun-sektoreetara bideratu zen, baita beste arlo ekonomiko batzuetara ere. Kuba, 1980ko amaieran, Nikaraguaren lehen emailea bihurtu zen; 27 milioi dolarreko laguntza emanez (Domínguez Reyes, 1990: 102).

Nikaraguako gobernuko liderrek arreta handia jarri zieten Fidel Castroren ikuspuntuei, eta maiz kontsulta egiten zioten zenbait arazori buruz. Halaber, batzuetan, Nikaraguako kanpo-politika aurrera eramateko, bere ikuspuntua oinarritzat hartu zuten.

1981ean, Kubak Nikaraguarentzat 64 milioi dolarreko paketea kreditutan adostu zuen, eta 1982an, 130 milioi dolar gehitu zituen. Kreditu hauek hainbat proiektu sozialetarako eta azukre-errota bat eraikitzeko bideratuta zeuden. Baina, azkenean, errotaren eraikuntzarako kredituak dohaintza bihurtu ziren. Nikaraguako iturrien arabera, 1979tik 1987ra Nikararaguak 64,9 milioi dolar jaso zituen Kubatik (gehienak 1982an bidali ziren: 48,9 milioi) (Domínguez Reyes, 1990: 103). Horrek Kuba, herrialde sozialisten artean, Nikaraguako dohaintza-emaileen artean, bosgarren lekuan jarri zuen.

Merkataritzari dagokionez, Kubako Iraultzaren aurretik ez zegoen inolako harremanik bi herrialde hauen artean. Beraz, Nikaraguak Kubara esportatzen zuena ezerezetik guztizko esportazioen % 4,2raino igo zen. Kubatik zetozen inportazioak, berriz, pixka bat handiagoak baino ez ziren izan: % 5,2 1982an. 1986. urtearen inguruan, Nikaraguatik Kubara egindako esportazioak 1,4 milioi dolarrekoak izan ziren; 1985ean, berriz, inportazioak 33.6 milioi dolarrera iritsi ziren (Domínguez Reyes, 1990: 103).

Kopuru horiek guztiek erakusten dute Kubak, nahiz eta baliabide mugatuak izan, ahalegin handiak egin zituela Nikaragua hornitzeko, eta bi herrialdeen artean benetako elkartasuna eman zela. Kubak 1982an, bereziki, ahalegin handiak egin zituen, baita herrialde sozialisten artean ere, segur aski gertutasun geografikoagatik eta Nikaraguarekin zituen antzekotasun ekonomikoengatik, baita Iraultza Sandinistaren iraupenarekin zuen konpromiso handiagatik ere. Aurretik aipatu bezala, konpromiso hori oso nabarmena izan zen Armada Sandinista antolatzeko laguntzan.

Dirudienez, Kubako Zuzendaritzak uste zuen aholkulari kubatarrek Nikaraguan egon behar zutela, Kubaren Nikaraguaren segurtasunarekiko interesaren eraginez, hau da, Karibeko herrialdean Iraultza mantentzeko. Hala ere, euren ustez, soilik funtsezkoak ziren arloetan egon behar zuten; hala nola, Armada Sandinistan, inteligentzia militarrean eta barne-ministerioan (Domínguez Reyes, 1990: 103).

1980ko amaieran eta 1981ko hasieran, Nikaraguako eta Kubako kanpo-politiken lankidetza El Salvadorren argi geratu zen, bi herrialde hauek batera gerrillari armamentua bidali ziotenean. Lankidetzaren beste adibide bat El Salvadorren bertan eman zen. Kubak eta Nikaraguak José López Portillo Mexikoko Presidenteak delineatutako ekimena ontzat hartu zuten, hau da, gerrillak konbentzitzen saiatu ziren negoziazio politikoak onartzeko (Domínguez, 2009: 198-199).

Nikaragua El Salvadorreko gerrillen eta Kubaren ordezkari jardun zuen NBEeko Segurtasun Kontseiluaren aurrean, kide izan zenean, horien bozeramaile gisa. (Domínguez, 2009: 199). Horrek, nazioartean, Kuba eta Nikaraguaren lankidetza eta elkartasuna agerian utzi zituen, eta Kuba bere Iraultza esportatzen ari zela ikusi zen.

Nikaraguari dagokionez, Kubako Gobernuak Iraultzak abiatu zuen eraldaketa-prozesuan lagundu zuen, osasunean, hezkuntzan eta beste arlo batzuetan lankidetza solidarioa eginez (Alzugaray, 2009: 89). Izan ere, Kubaren eta Nikaraguaren arteko harremanak estuak ziren eta biziki hazten ziren. Kubak presentzia zibil nabarmena eta militar apala zuen Nikaraguan, asistentzia horren maila eta eremua handitzeko gaitasun osoarekin. Kanpo-politikako gaietan, Fidel Castroren esku-hartzea oso garrantzitsua izan zen herrialdearentzat.

Oro har, Kubaren laguntza faktore garrantzitsua izan zen 1979an Nikaraguako sandinistek boterea hartzeko. Esperimentuak hamar urte iraun zuen, Estatu Batuen esku-hartzeak eta barne-arazoek suntsitu zuten arte (Randall, 2017: 90). Kubako kanpo-politika, Nikaraguari dagokionez, bat zetorren bere nazioarteko politikaren ezaugarri nagusiekin, hau da, 70. hamarkadaren erdialdetik aurrera, beste herrialde batzuei programa-sorta zabala ematearekin. Kubak Nikaragua egonkortu eta zentralizatu nahi izan zuen, sistema politiko iraultzailea ezartzeko asmoz. Hala ere, Iraultza esportatzeko lehen urteetan zuen grina gutxiagotzen hasi zen.

## 5.3. KUBA, SOBIETAR BATASUNA ETA NIKARAGUA

Kubako kanpo-politika aztertzean ikusi den bezala, Sobietar Batasunak rol erabakigarria izan zuen herrialdean. Horregatik, interesgarria da Sobietar Batasunaren eta Nikaraguaren arteko harremanak aztertzea, garrantzitsua baita aztertzea ea

Kubaren eta SESBren helburuak berdinak ziren harreman horietan. Eta, gainera, era honetan, Kubaren eragina harreman horietan ikusi ahal izango da.

Kubak eta Sobietar Batasunak, Hirugarren Munduarekin zuten harremanari dagokionez, bi politika-mota oso desberdinak zituzten. Alde horrek bere esperientzia historikoa islatzen du, baina baita nazioarteko komunitatean zituzten lekua eta helburu ideologikoak ere. Sobietar Batasunarentzat, Hirugarren Munduko talde klandestinoei laguntza iraultzailea emateko garai hau Bigarren Mundu Gerran amaitu zen, Komintern-aren desagertzearekin batera. Are gehiago, Latinoamerikari dagokionez, Sobietar Batasuna beti izan zen eszeptikoa bere aukera iraultzaileen inguruan, Estatu Batuetatik oso gertu baitago. Hala ere, Kuba araua berresten duen salbuspena da.

Aipatu den bezala, Sobietar Batasunak eta Kubak Latinoamerika eta Karibean interes oso desberdinak zituzten. Dena dela, Kubak sobietarrei konpromiso jakin batzuk harrarazi zizkien, beraien kabuz hartuko ez zituztenak (Domínguez, 2009: 242).

Sobietar Batasaunarentzat, Karibea ez da inoiz izan bere lehentasun geografikoetako bat. Buruzagi sobietarrek ez zuten interesik izan eskualde horretan, ez ikuspegi politikotik ez ekonomikotik, nahiz eta zenbait interes geopolitikok zeresana izan duten Kubaren kasuan. Are gehiago, Latinoamerikako gainerako herrialdeekin bezala, 1979ra arte, Sobietar Batasuna oso eszeptikoa zen Karibeko aukera iraultzaileei dagokienez (Rojas, 1988: 820). Sobietar Batasunak eremu horretako herrialdeak ez zituen egokitzat jotzen, garapen-maila txikia zutelako “eraikuntza sozialista” horien parte izateko. Erdialdeko Amerika, halaber, diktadura militar klasikoak zituen kontinenteko <<talderik atzerakoi eta pro-inperialistena>> zela uste zuten sobietar adituek (Gonionski, 1972: 42-48).

Sobietar Batasunak ez zion ia kasurik egin Nikaraguari 1979. urtea baino lehen. Sobietar aditu batzuen arabera, Nikaragua ez zen izan eraldaketa iraultzaileetarako hautagaia, langile-klasearen ahultasunagatik eta Somoza diktadurak herrialdean zuen indarragatik. Hala ere, 1978ko abuztuan, sobietarrek borroka sandinista interesarekin behatu zuten, eta Mosku izan zen sandinisten erregimen berria zoriondu eta onartu zuen lehenetarikoa (Domínguez Reyes, 1990: 108). Somozaren gaineko garaipen

sandinista ustekabeko gertaera gisa iritsi zen Sobietar Batasunarentzat, baina ez hainbeste Kubarentzat. Sobietarrak zuhurtziaz hurbildu ziren Nikaraguako Iraultzara.

Kuba, aurretik aipatu den bezala, Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduko presidente hautatu zuten, eta, gainera, azpimarragarria da aipatzea 1979an Habanan egin zela goi-bilera. Fidel Castro lau urtez egon zen presidentetzan (1979-1983). Testuinguru horretan, Kuba eta Sobietar Batasuna Nikaraguarekiko politika bat garatzen hasi ziren; hala ere, politika horren irismena eta bilakaera ez zegoen argi hasierako uneetan (Domínguez Reyes, 1990: 100).

Aditu gehienek bi alditan banatzen dute Nikaraguarekiko sobietar politika (Domínguez Reyes, 1990: 108):

1) 1979tik 1981era bitarteko aldia: Sobietar Batasunak berreraikuntzan izan zuen garrantzia hutsala izan zen, Kuba edo Latinoamerikakoarekin erkatuz.

2) 1981etik 1990ra arteko kompromiso-aldia: fase honetan, gero eta konpromiso handiagoak egon ziren SESBren partetik, Estatu Batuek egindako blokeo birtualaren ondorioz eta Nikaraguak Latinoamerikako eta Europako zenbait gobernuren artean zuen ospearen beherakadaren ondorioz.

1980. urtearen amaieran, Ronald Reaganek hauteskundeak irabazi zituenean, 1979. urteko Iraultza sandinistaren garaipenetik atera zen erregimen berriarekin pozik ez zeuden sektoreei irmo laguntzea erabaki zuen. Hauen artean, batez ere, Somozaren garaiko guardia nazional ohiak eta Iraultzaren nekazaritza-erreformaren lehen neurriekin konforme ez zeuden nekazariak zeuden. Horiek guztiak mugimendu batean elkartu ziren, "kontrairaultzaileak" ziren eta Contra izenez ezagunak izan ziren, terminoaren laburdura gisa. Inteligentzia Agentzi Zentralaren (CIAren) bidez, batzuetan, eta ezkutuko laguntzen bidez, beste batzuetan, Estatu Batuek 1980ko hamarkadaren zatirik handienean Contra finantzatu zuten (Ferrero, 2015: 30).

Kontrairaultzak agertu diren Estatuetan, herrialde horien Iraultza esportatzeko helburua erabili dute euren esku-hartze horiek justifikatzeko (Halliday, 1999: 94). Kasu honetan, Estatu Batuek asmo horiek erabili zituzten Nikaraguan egindako esku-hartze gogorra arrazoitzeko.

Nikaragua Amerikako Estatu Batuekin bizitzen ari zen egoera ikusita, 1985ko otsailaren erdialdera, SESBeko enbaxadoreak, Yuriv Pavlov-ek, Nikaraguaren posizioa indartu nahian, hurrengoa jakinarazi zion: <<entregaría todas las armas que aquella solicitara para defenderse de la guerra no declarada que estaba sufriendo, salvo armas nucleares>> (Varas, 1991: 257).

1985eko apirilean, Daniel Ortegaren eta Gorbachoven arteko elkarrizketa izan zen. Daniel Ortegak Gorvachovi armamentuaren eta aholkularitza militarraren beharrak azaldu zizkion. Horrez gain, armek Nikaraguara zuzenean joan behar zutela jakinarazi zion, Kubatik eskala egin gabe. Horrek esan nahi zuen Kuba igarotzen zuen ibilbideari uko egin behar zitzaiola. Irlan material-pilaketa handia zegoen, eta kalkulatzen zen hiru urte inguru behar zirela dena Nikaraguara eramateko. Halaber, sobietar batzorde bat Nikaraguara joateko eskatu zion, defentsa-planetan aholkuak emateko, horniduren estaldurarekin eta era guztietako intendentziarekin batera. Gorvachov Nikaraguara laguntza guztia bidaltzeko prest agertu zen, baina herrialdearen ibilbide ekonomikoa ahalik eta gehien bideratzera behartu zuen Ortega, beste herrialde sobietar batzuetan gertatu zen berdina gerta ez zedin (Ferrero, 2015: 31).

SESBeko Alderdi Komunistaren eremuan, Gorvachovek erakutsi zuen, alde batetik, aldaketarako nahiek mugak zituztela, eta, bestetik, erreformak egiteko nahia zeukala. SESBen tradizio historikotik zetorren inertzia nabaria zen bere gomendioetan, non alderdiaren funtzionamendua eta eraginkortasuna beti gobernuaren jardueren aurretik jartzen zen. Ondorioz, FSLNaren Zuzendaritza Nazionalak azpimarratu zuen bere unitate monolitikoa gorde behar zuela funtsezko kontrola bermatzeko: organo armatuak, estatuaren aparatua eta masen mobilizazioa. Izan ere, hori zen modu bakarra FSLNa etorkizunean alderdi marxista-leninista bihurtzeko (Ferrero, 2015: 31-32).

Erdialdeko Amerikako gatazkaren behatzaileek Daniel Ortegaren eta Mijaíl Gorbachoven arteko topaketa akats taktiko larritzat kalifikatu zuten, Ronald Reagani sandinismoaren izaera komunista sentiarazteko balio izan zion-eta. Gainera, Nikaraguak SESBera egindako bidaia hori aitzaki egokia izan zen herrialdearen aurkako jarrera justifikatzeko (Ferrero, 2015: 32). Hilabete geroago, 1985ko maiatzean, blokeo komertziala dekretatu zen. Nikaraguaren blokeoa dekretatu ondoren, Daniel Ortegak

elkartasuna zabaltzeko eta Europarekiko harremanak areagotzeko presa izan zuen, bai eremu sozialistako herrialdeekin, bai Mendebaldeko Europarekin.

Gerraz gain, krisialdi ekonomikoa ere areagotzen zen. Hori dela eta, Henry Ruiz-ek, Planifikazio eta Aurrekontuetarako Ministroak, harreman estua izan zuen sobietarrekin, epe ertain eta luzerako estrategia ekonomikoa prestatzeko asmoz (Ferrero, 2015: 33). Hala ere, 1985eko otsailean, egoerak ez zuen atzerapen gehiagorako astirik uzten, eta, azkenean, doiketa ekonomiko handia ezarri zen, dirua debaluatuz eta dolarrik gabeko merkatua onartuz. Inbertsio publikoa murriztu egin zen eta oinarrizko produktuetarako diru-laguntzak kendu ziren, baina soldatak handitu behar izan ziren debaluazioa konpentsatzeko.

Daniel Ortegak bere alderdiaren irudirik onena aurkezten zion Sobietar Batasunari, baina egoera muturrekoa zen: Estatu Batuek Contra gero eta gehiago finantzatzen zuten. Gainera, SESBek herrialde lagunei, besteak beste, Nikaraguari, eman ziezazkiokeen laguntzen izaera eta dimentsioak aldatzen ari ziren: gero eta eskasagoak ziren. Beste aldetik, Reagan Nikaragua isolatzen ari zen, hurrengo argudioa baliatuz: sistema totalitario bat zegoen herrialdean, eta Nikaraguako ekonomiak behera egiten zuen ezinbestean. Horrez gain, Nikaraguak AEBn jarrera leundu egin nahi zuen, baina SESBak ezin izan zuen hori onartu (Ferrero, 2015: 37).

Errusiako Iraultzaren Hirurogeita Hamargarren Urteurreneko ospakizunera joateko aitzakiarekin, Nikaraguako beste ordezkaritza talde bat joan zen Moskura. Daniel Ortegak eta Gorbachovek elkarrizketa bat izan zuten, eta, berriro ere, Nikaraguarekiko adiskidetasuna nabaritu zen, baina agerian geratu zen SESBek ezin zuela laguntza material gehiago bidali.

80. hamarkadaren amaieran, AEBek Contrari emandako laguntza gero eta handiagoa zen, eta, beste aldetik, Nikaragua ez zen krisialditik ateratzen. Gainera, SESBek maileguak eta kredituak murriztu behar izan zituen. 1988ko otsailean, Daniel Ortegak, SESB eta Nikaraguaren azken Batzorde Mistoaren bidez, jakin zuen bere oinarrizko eskaerei ezin izan zitzaiela erantzun (Ferrero, 2015: 43).

AEBen jarrera Nikaraguarekiko hain gogorra eta zurruna zenez, Gorvachov eta Fidel Castrok FSLNko Zuzendaritza Nazionalari horren inguruan zekitena jakinaraztea erabaki

zuten. Alegia, Fidel Castrok Daniel Ortegari jakinarazi zion George Bushek gutun bat idatzi ziola Gorbavchovi, Habanara joan aurretik. Gutun horretan, Nikaraguako eta Erdialdeko Amerikako bakea lortzeko Zuzendaritza Nazionalak egidako ahaleginak gaitzesten zituen. Daniel Ortegak Bushen iritzia ezagutu zuenean, gutun baten bidez, Gorvachovi Bushen aurka gogor egiteko eskatu zion. Halaber, Nikaraguak ezin zuela bere kabuz arma guztiak bertan behera utzi jakinarazi zion (Ferrero, 1990: 50).

Contrako gerra bukatzear zegoen, eta ez zen kasualitatea bloke komunistaren amaierarekin bat etortzea. Horri buruz hausnartu zuen Ernesto Castillok (1985etik 1990ra SESBn Nikaraguako enbaxadorea izan zenak):

> <<Lo que empezó aquí siendo una guerra civil, terminó siendo un acuerdo entre potencias para las que Nicaragua había sido una excusa de rivalidades, como Vietnam, como Corea... y llegado el momento en que las potencias decidieron entenderse, dieron las oportunas órdenes y hubo que sentarse a negociar>> (Castillo, 2012; hemen aipatuta: Ferrero, 2015: 52).

Hori guztia kontuan hartuta, ikus daiteke SESBek Nikaraguaren biziraupenerako interesa izan zuela. Bere laguntza oso garrantzitsua izan zen finantza eta materialari dagokionez. Izan ere, arlo horietan, Kubak emandakoa baino askoz handiagoa izan zen. Kubaren laguntza, berriz, aurretik ikusi den bezala, hezkuntza- eta osasun-arloetan gehiago gauzatu zen. Laguntza horiek euren artean osagarriak izan ziren. Beste alde batetik, Kubak bizilagun fidagarri bat ikusi zuen Nikaraguan, eta bere baliabide guztiekin laguntzen saiatu zen. Hori dela eta, SESBek Nikaraguari emandako laguntza hein handi batean Kubak sustatu zuen.

1990eko otsailaren 25ean oposizioak garaipena lortu zuen Nikaraguako hauteskundeetan, Violeta Chamorro buru zela. Hala, etapa berria inauguratu zen Nikaraguako historian (Ruigómez, 2011: 5-6). Momentu horretan, Nikaraguako Iraultza ia-ia deseginda zegoen SESBetik eta Kubatik urruntzen joan zen; ordea, Estatu Batuetatik gero eta hurbilago zegoen.

## 5.4. NIKARAGUAREN SARRERA ALBA-TCPn

ALBA-TCP da Kubak eta Nikaraguak parte hartzen duten eskualdeko integrazio- eta lankidetza-eskema nagusiena. Merkataritza-logika hertsian, ALBA-TCP integrazio ekonomikorako prozesua ez dela dirudien arren, dimentsio ekonomikoaz gain, merkataritzakoa ere badago, ALBA-TCP delakoaren Espazio Ekonomikoa sortzeko proiektu *grannazional*[2] edo ekimenak sustatzeko egindako ahaleginetan agertzen dena. Bistan denez, ALBAk dimentsio politiko sendoa du, bere burua aurkezteko helburuari berez lotuta, bloke anti-neoliberal eta antisistemiko gisa (Briceño Ruiz, 2014:154; hemen aipatua: Romero, 2015: 114).

Izandako bilakaeran, ALBA-TCPk bere herrialdeen arteko harreman ekonomiko-komertzialak indartzeko ekintzak diseinatzen eta proposatzen dituen etaparantz jo du. Hala ere, zailtasun handiak izan ditu horretarako. Ekintza horietan, Kubako posizioa izan da nagusi, eta Irlak berretsi du beharrezkoa dela erakunde horren esparruan garatzen diren proiektuak ekonomikoki bideragarriak izatea. Era berean, Kubak berebiziko garrantzia izan du ALBA-TCPn sartu diren Karibeko herrialde txikien berezitasunak eta interes partikularrak kontuan hartzean, baita maila politikoan hartutako akordioen instituzionalizazioan aurrera egitean ere. Azken hori funtsezkoa da estatu-kideen artean adostutako programei eta proiektuei gutxieneko iragarpen-mailak bermatzeko, batez ere, alde batetik, blokeko estatu-kide gehienentzat oso ondorio kaltegarriak dituen nazioarteko testuinguruan, eta, bestetik, gaur egun ALBA-TCPren erdiguneko ekonomiak bizi dituen zailtasun larrien esparruan (Romero, 2015: 115).

2007ko urtarrilaren 11n, Nikaragua ALBA-TCP erakundeko laugarren kide bihurtu zen. Daniel Ortegaren lehen ekitaldi ofiziala izan zen ekimenarekiko atxikimendu formala (Benzi, 2017: 16). Nikaraguako presidenteak sandinismoa boterera itzuli zela ospatzeko, hurrengoa esan zuen: <<Nos vamos a incorporar al ALBA, esa unidad de los

2 Grannazional terminoa ALBAren esparruan sortu zen. Kontzeptua, bereziki, politikoa da, baina nazioen bizitzaren alderdi guztiak biltzen ditu. Herrialdeen arteko ahaleginak bateratzeko modu bat da, XXI. mendeko erronkei hainbat arlotan aurre egiteko. Proiektu grannazionalak ALBAren printzipioak eta helburuak betetzeko ekintza-programak dira. Programa horiek osatzen dituzten herrialdeek baliozkotu egin behar dituzte, eta bi herrialde edo gehiagori eragiten diete, gehiengo sozial handien onurarako.

pueblos que es la única que puede sacar de la pobreza a toda América Latina>> (Portal ALBA, 2007).

ALBA-TCPk, Kubaren laguntzarekin, Nikaraguako pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka azpimarratu nahi izan zuen. Erakundeak nazioen artean abantaila kooperatiboak sortzen dituzten mekanismoak diseinatzen ditu, eta hemisferioko herrialdeen arteko asimetriak konpentsatzen ditu, Kubaren kanpo-politikaren norabidea agerian utziz. Gainera, konpentsazio-funtsen lankidetza bermatzen du, herrialde ahulak potentzien aurrean desabantailan jartzen dituzten desberdintasunak zuzentzeko (Portal ALBA, 2007).

UNESCOren arabera, Nikaraguako alfabetza-tasa, batez beste, % 78 zen helduetan 2007 eta 2011 urteen artean. ALBAk Kubaren laguntzarekin hezkuntza-esparruan egindako lanak Nikaraguako analfabetismoa desagerraraztea lortu zuen. Kubak “Yo, sí puedo” alfabetatze-metodoa erabili zuen herrialdean. 2009an, Nikaragua analfabetismorik gabeko herrialde izendatu zuen UNESCOk, analfabetoen populazioa % 3,5era murriztera lortu baitzuen. Nikaraguako teknikarien iritziz, Kubaren lana, lankidetza teknikoa ez ezik, giza-lankidetza ere badela uste dute (El Confidencial, 2009).

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) aurrean aurkeztutako txosten baten bidez, 2013. urtean, Nikaraguak elikagaiak ekoizteko hainbat instalazio jarri zuela jakinarazi zuen. Martxan jarri zituzten lantegien artean, hauexek daude: bi ganadu-hiltegi, arto-irina egiteko planta bat eta esnekien bi instalazio (FAO, 2012).

FAOren aurrean aurkeztutako txostenaren arabera, Nikaraguako Gobernuak, ALBA-TCP erakundearen laguntzarekin, energia elektrikoaren horniduraren eta eguneko 16 ordu arteko itzalaldien arrazionalizazioa ezabatu ahal izan zuen, instalazio elektrikoak eraikitzeari esker. ALBAko esparruan ere, gaur egun, Nikaraguan “El Supremo sueño de Bolívar” findegia eraiki da. Horri esker, Erdialdeko Amerikako herrialdeetako petrolio gordinaren eta deribatuen eskariaren % 41 bete daiteke (FAO, 2012).

Nikaraguako gobernuak esan zuen ALBA-TCP programaren bidez 164.000 lanpostu sortu direla 2007tik 2011ra. FAOren datuen arabera, Nikaragua lehen Milurtekoko

Helburura iritsi zen, muturreko pobrezia 2001ean % 15,1etik 2009an % 9,7ra jaitsi baitzen, ALBAren eragina dela eta (FAO, 2012).

Nikaragua ALBA-TCPn sartu izanak berpiztu egin du Kubarekiko harremana. Aurretik ikusi dugun bezala, Nikaragua gai izan da proiektu berriak sortzeko ALBAren esparruan. Gainera, eremu honetan, Kubaren euskarria eta laguntza izan du. Kubak, Iraultzatik hirurogei urte igaro eta gero, hegoaldeko herrialdeekiko lankidetza bilatzen jarraitzen du (batez ere, integrazio-esparruen testuinguruan), besteak beste, Nikaraguarekiko.

## 5.5. HARREMANAK COVID-19aren TESTUINGURUAN

Azken hilabete hauetan, faktore oso garrantzitsu batek esku hartu du, bai Estatuen kanpo-politikan bai barne-politikan: Covid-19a. Mundu mailako pandemia hau etorkizunean ebaluatu ahal izango da, eta kutsatutako pertsona-kopuru, heriotzak, eta munduko ekonomiari, ekoizpenari, merkataritzari, enpleguari eta milioika pertsonaren diru-sarrerei eragindako kalteak ikusiko ditugu. Hala ere, bitartean, herrialdeak hartzen ari diren jokaerak aztertu daitezke, Kubarena zehazki. Hain zuzen ere, Nikaraguarekin duen harremanetan nola eragin izan du.

Gaitza mundu osotik hedatzen hasi da, hau da, nazioen artean eta barruan dagoen desberdintasun ekonomiko eta sozial ikaragarria ezaugarri duen eszenatoki orora. Gainera, momentu honetan, aurrekaririk gabeko migrazio- eta errefuxiatu-fluxuak, xenofobia eta arraza-bereizkeria azaleratzen ari dira berriz ere, eta zientziaren eta teknologiaren aurrerapen izugarriak, bereziki osasun-arlokoak, gero eta gehiago kontzentratzen dira farmaziako negozioetan, gehiengoen ongizatea eta bizimodu osasungarria bermatzera jo beharrean (Granma, 2020b). Covid-19aren testuinguruak, ordea, kapitalismo neoliberalaren dogma guztiak suntsitzen ditu.

Aldiz, Kubak pandemiaren aurkako borroka globalean bere esperientzia apalak ekartzeko eta partekatzeko prest dagoela adierazi du (Cubadebate, 2020). Farmazeutiken gerran sartzetik urrun, Kuba beste herrialdeekiko elkartasuna erakusten ari da Covid-19ren aurrean. Gainera, Irlak doako osasuna, Estatu handia eta arlo pribatu gutxi ditu (Betto, 2020). Hiru faktore horiek, Iraultzaren hasieran ezarri zirenak,

pandemiaren aurrean kokapen onean jarri dute Kuba, eta beste herrialde batzuei laguntzeko gaitasuna handitu dute.

Covid-19a Kuba eta Nikaraguara ere iritsi eta hedatu da. Martxoaren 17an, Rosario Murillok Nikaraguak Kubari mediku espezialisten brigada bat eskatu ziola jakinarazi zuen, Covid-19 pandemiari aurre egiteko asmoz. Eskaera Miguel Díaz-Caneli egin zitzaion, eta erantzuna baiezkoa izan zen (Granma, 2020a).

Murillok zehaztu zuen Henry Reeve brigada Nikaraguara joango zela. Brigadak historia luzea du hondamendien aurrean egindako nazioarteko lankidetzan, eta Irlako birologo, epidemiologo eta mediku kliniko intentsiboetan aditutako talde batek osatutako du (Granma, 2020a). Eta horrela izan zen, duela zenbait aste, bost mediku kubatar osatutako brigada txiki bat Nikaraguara joan zen. Brigadaren helburu nagusia aholkularitza eskaintzea eta herria eta gobernuari laguntza ematea zen, Covid-19aren aurkako borrokan eta kontrolean (Escambray, 2020).

Bere herritarrentzako arrisku guztien jakitun, Habanak Italiako laguntza deiari ere erantzun zion, eta Lombardia eskualdera 52 mediku bidali zituen. Nikaraguaz eta Italiaz aparte, Kubako medikuak bizitzak salbatzen ari dira Venezuela, Granada, El Salvador, San Vicente eta Grenadinak, Saint Kitts eta Nevis, Surinam eta Jamaikan (Granma, 2020b). Lehen aldia da Kubak horrelako laguntza ematen diola Italia bezalako herrialde garatu bati, nahiz eta Latinoamerikan eta Hirugarren Munduko herrialdeetan mediku kubatarrak egotea ohikoa den (Vicent, 2020). Kubako kanpo-politika beste herrialdeetan laguntzera bideratuta egon da hamarkadetan zehar. Fidel Castrok argi utzi zituen kanpo-politikaren helburuak Argentinan:

> <<Un día dije que nosotros no podíamos ni realizaríamos nunca ataques preventivos y sorpresivos contra ningún oscuro rincón del mundo; pero que, en cambio, nuestro país era capaz de enviar los médicos que se necesiten a los más oscuros rincones del mundo. Médicos y no bombas, médicos y no armas inteligentes, de certera puntería, porque, al fin y al cabo, un arma que mata traicioneramente no es absolutamente un arma inteligente>> (Fidel Castro, 2003).

Ikusi den bezala, Kubak Nikaraguarekiko harremanak egokitu behar izan ditu, bizi ziren testuinguru historikoaren arabera. Gaur egun, FSLN ezberdina du aurrean, alegia, Iraultza garaiko oso desberdina dena eta eskuinarekin aliatuta dagoena, bai herrialdekoarekin (burgesia, Eliza...) bai kanpokoarekin (Txilere, Estatu Batuak eta Kolonbia bezalako herrialdeekin). Hori dela eta, harremanak ez dira jada esparru iraultzaile batean gertatzen. Hala ere, Kubak Nikaraguan ezarritako ortegismoari laguntzen jarraitzen dio, baita, aipatu den bezala, Covid-19aren esparruan ere.

## 6. ONDORIOAK

Azkenengo atal honetan, hasieran planteatutako hipotesiak zenbateraino diren zuzenak egiaztatzen saiatuko gara. Horretarako, aurreko ataletan aztertutako guztia kontuan hartuko dugu. Beste alde batetik, landutako teoria kasu praktikoarekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

Lanaren hasieran formulatutako lehenengo hipotesia aztertzen hasiko gara, hau da, *Kubako kanpo-politika Irlak igaro dituen testuinguruetara hau da, bizi izan dituen fase desberdinetara, egokitu da*. Honek lotura zuzena du Kubako kanpo-politika iraultzailearekin. Era berean, azpi-hipotesi bat planteatu zen: *Kubak, Estatu Iraultzailea denez, Iraultza ondorengo urteetan zehar Karibe eta Latinoamerikako herrialdeetan iraultzak sustatzeko kanpo-politika izan zuen*. Hori ere ikertuko dugu.

Kubaren kanpo-politika iraultzailea aztertu ondoren, bere helburu nagusienak bi izan direla esan dezakegu: alde batetik, Iraultza esportatzea, eta, bestetik, bizirautea. Helburu horiek lortzeko bideek testuinguru desberdinetara moldatu behar izan dute.

Iraultza hasi zen urteetan, Kubak Iraultzaren aurreko erakundeei aurre egin behar izan zien. Beste alde batetik, ideologia eta estrategia argirik ez zituzten espedizioak antolatzen hasi zen, baina guzti-guztiek porrot egin zuten. Espedizio horiek Iraultza esportatzea zuten helburu. Elkartasun kontinentala argia zen, baina ez zen ezer lortu. Bestalde, eszenatoki berri batera egokitu behar izan zuen, eta aurre egin behar izan zien Estatu Batuen interesei. Hori dela eta, harreman diplomatikoak ezarri eta merkataritza zabaldu behar izan zuen Sobietar Batasunarekin eta Europako herrialde sozialistekin, Estatu Batuekin esparru guztietan zituen harremanak bertan behera geratu baitziren.

Kubaren lehen urte iraultzaileak oso gogorrak izan ziren Irlarentzat: Iraultza hasi eta hiru urtera Kuba Amerikako Estatuen Erakundetik kanporatu zuten. Gainera, Estatu Batuek Cochinos Badiako Inbasioan egindako hutsa eta gero, Kuba Mendebaldeko Hemisferiotik ia isolatuta geratu zen. Horregatik, Kubak Sobietar Batasunera gero eta gehiago hurbildu behar izan zuen, eta, era horretan, testuinguru berrira egokituz joan zen. Bestalde, Kubak, Estatu iraultzaile gisa, Iraultza esportatzeko ahaleginak areagotu zituen, eta, hala, Latinoamerikako gerrillei babesa handitu zien.

Herrialdeak aurreikusi zuen Iraultza kontinentala ezinbestekoa zela bere biziraupenerako. Hori dela eta, hurrengo urteetan, Latinoamerikako beste alderdi komunistekin elkar ulertzen eta haiekin akordioak egiten hasi zen. Hala ere, 60. hamarkadaren amaieran, foku-gerrillariaren teoria Iraultzarako bide bakar gisa hartu zuen. Segur aski, testuinguru horretan ez zuen ikusi bere ikuspegi hain idealistak ez zirela posible. Edonola ere, barruko eta kanpoko fronteetan zituen hondamendiak ikusita, Kubak bere politikak berriz aztertu behar izan zituen. Ondorioz, ikusi zuen momentu hartan ezinezkoa zela Iraultza kontinentala aurrera eramatea planteatu zuten bezalaxe, eta hain idealista ez zen beste politika bat jarri behar izan zuen martxan. Hala, aldaketa iraultzailerako beste bide batzuk onartu ziren: estatu kolpeak, hauteskundeak... Kuba politika berri horrekin berriro moldatu zen testuingurura. Harreman diplomatikoak eta komertzialak ezarri zituen Latinoamerikako hainbat herrialderekin, nahiz eta Iraultzaren esportazioa gutxiagotzen joan zen.

70. hamarkadan, aldiz, Kuba pragmatismora itzuli zen. Bide ez-gerrillariak onartu ziren Iraultza egiteko, eta 60. hamarkadaren amaieran hasi zena jarraitu zen, hots, Latinoamerikako hainbat herrialderekin harremanak berrezartzea.

Kuba, 90. hamarkadara arte, Iraultza bere baliabide guzti-guztiekin esportatzen saiatu zen. Egoera ezberdinetara egokitzen jakin zuen, eta kanpotik ezarritako erronkei aurre egin zien. Zalantzarik gabeko konpromisoa izan zuen Hegoaldeko estatuekin, eta Afrikako eta Amerikako hainbat herrialdetan gerrilla iraultzaileak ezartzeko ahalegin handiak egin zituen. Horrez gain, armamentuan, logistikan eta material humanitarioan ere izan zen laguntza, herrialdeetako hezkuntzan eta osasunean lan handia eginez. Dena den, oro har, ez zen Iraultza esportatzeko helburua lortu, nahiz eta 1979an Nikaraguan sandinistek lortutako garaipena salbuespen garrantzitsua izan. Hala ere, Iraultza terminoaren zentzu hertsian esportatu ez bazen ere, Kubak Afrikako eta Amerikako herrialde ezberdinetan izan zuen jarduerak arrasto garrantzitsuak utzi zituen herrialde horietako gizarteetan. Horregatik guztiagatik, Kubako kanpo-politika, Iraultzaren lehen urteetan, Iraultza esportatzera bideratuta egon zela esan dezakegu, eta hori Irlak jarritako baliabideetan (finantziarioetan, logistikoetan, giza-baliabideetan...) antzeman dezakegu.

90. hamarkadan, ordea, Kubak fronte berri batera egokitu behar izan zuen: krisialdi ekonomikora. Krisialdia Sobietar Batasunaren gainbeherarekin batera etorri zen, eta horrek bere aliatu nagusirik gabe utzi zuen Irla. Horrela, nazioarteko testuinguru berrira moldatu eta bere tropa guztiak erretiratu behar izan zituen Hegoaldeko herrialdeetatik. Modu horretan, 30 urtez izandako konpromisoa amaitu zuen. Iraultzaren esportazioak bigarren mailara pasatu behar izan zuen, eta bere kanpo politika berdefinitu behar izan zuen.

Aurretik askotan gertatu izan zen bezala, Kubak bizi zen testuingurura egokitzen jakin zuen, eta, zalantzarik gabe, Fidel Castrok boterean eman zituen azken urteak Irlaren kanpo-politikarentzat nahiko oparoak izan ziren. Alde batetik, presidenteak Latinoamerikan zentro-ezkerreko gobernuen gorakada aprobetxatzen jakin zuen. Gainera, Venezuela, petrolioan aberatsa den herrialdea, bere aliatu nagusi bihurtu zuen. Aldiz, Iraultzaren esportazioa, aurreko hamarkadetan ikusi zen bezala, ez zen Kubako kanpo-politikarako bide bideragarria, eta tropak atzerrira bidaltzeko ekintza ahanzturan geratu zen. Presidenteak erabaki zuen Iraultza esportatzen jarraitzeko modua hauxe izango zela: bere herrialdearen presentzia eskualdeko integrazio-esparru deberdinetan areagotzea. Castrok, Hugo Chavezekin batera, gehien landu zuen integrazio-blokeetako bat ALBA-TCP izan zen. Bertan, politikoki identifikatzen ziren Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeak integratu zituen, integrazio ekonomikoa bilatzeko. Kubako kanpo-politikak berriro jakin zuen une historikora nola egokitu.

Raúl Castro eta Miguel Díaz-Canel herrialdearen buru izan diren urteetan, Kubak Iraultza esportatzeko Fidel Castroren bideari jarraitu dio, hau da, integrazio-esparruen bidez. Aldiz, Mendebaldeko herrialdeetara gero eta gehiago hurbildu da, eta, besteak beste, Mexiko eta Canadarekiko harremanak hobetu ditu, Nazio Batuen sisteman aktibo dago eta EBrekin harremanak ezarri ditu.

Laburbilduz, formulatutako lehen hipotesia eta bere azpi-hipotesia egiaztatu daitezke. Kubaren kanpo-politikak hainbat testuingurutara egokitu behar izan du (Estatu Batuen blokeora, Sobietar Batasunaren desagertzera, 90. hamarkadako krisialdi ekonomikora...), eta halaxe egin du beti, alegia, Kuba aurre egin behar izan dien testuinguruetara egokitu da, eta bere kanpo-politika aldatuz joan da egoera horietara moldatu ahal izateko. Bestalde, Kubak, lehen urteetan batez ere, Estatu iraultzaile gisa,

Iraultza esportatzera bideratutako kanpo-politikari eusten jakin zuen, eta bere internazionalizazio-saiakerak etengabe eman ziren. Alabaina, Kubak hainbat fase bizi izan du, eta lanean zehar aipatu den bezala, batzuetan ez da gai izan Iraultzaren esportatzea oinarritzat izan duen kanpo-politika mantentzeko. Momentu zehatz batzuetan, Iraultza esportatzeko helburua bigarren maila batean utzi du, baina betiere mantendu du. Azken hamarkada hauetan, aldiz, esportazio-bideak aldatu egin dira eta horiek integrazio-blokeen bidez ematen ari dira. Hala ere, oro har, Iraultza esportatzera zuzendutako kanpo-politika mantendu izan da beti.

Planteatutako bigarren hipotesia Kubaren eta Nikaraguaren arteko harremanak aztertzeko helburuarekin formulatu zen, eta honako hau izan zen: *Kubaren kanpo-politikaren eraginez, Nikaraguarekin izan dituen harremanak eremu iraultzailearen barruan gertatu dira*. Kasu honetan, bi azpi-hipotesi planteatu genituen. Alde batetik, *Kubako Iraultzaren lehenengo urteetan, Nikaraguako Iraultza Kubako kanpo-politikaren eraginez suertatu zen*, eta, bestetik, *Irlak, oraindik ere, lankidetza mantentzen du Nikaraguarekin, eta herrialdeak bizi duen Orteguismoaren politika-eremua aldatzearen alde egiten du*. Aipatutako bi azpi-hipotesien bidez, bigarren hipotesia egiaztatzen edo faltsutzen saiatuko gara.

FSLN, formalki sortu aurretik ere, Kuba Nikaraguako talde-iraultzaile batekin harremanak izaten hasi zen, horien artean Carlos Fonseca zegoelarik. Harreman hori 1961ean finkatu zen FSLNaren sorrerarekin. Mugimendu gerrillaria, zalantzarik gabe, Kubako Iraultzak inspiratu zuen. Bestalde, une hartan, lehen aipatu dudan bezala, Kuba Mendebaldeko Hemisferiotik bakartuta zegoen, eta Iraultza esportatzeko beharra ikusi zuen. Hori dela eta, Nikaraguara esportatzeko egin ziren ahaleginak handiak izan ziren, Kubak Nikaragua bere diktadurarekin amaitzeko benetako beharra baitzuen.

Carlos Fonseca (Kubarekin adiskidetasun harreman handiak zituena) eta FSLNko beste kide batzuk Kuban entrenatuak izan ziren. Buruzagi sandinistaren heriotza ez zen oztopo izan bi herrialdeen arteko harremanek jarrai zezaten. Fonseca hil ondoren, Kuba Nikaraguari laguntzeko hainbat ekintza egiten hasi zen. Beste alde batetik, nabarmentzekoa da Kubaren laguntzarik garrantzitsuena arlo politikoan izan zela, eta ez entrenamenduetakoan, ezta finantzarenean ere.

